

TANTARANTAN

IRU EGINTZETAN

Coribio Alragak

*idatziak
Dostirudia*

TANTARRANTAN.

IRU EGINTZETAN.

Toribio Alzaga'k.

Idatzitako.

Jostirudia.

Banaketa.

Joxpakiña

Martxela

Axeriya

Narxixo

Tiburtxio

Joxe Ramon

On Braulio

Miel Mai

Antton Miel

Lenengo Egintza.

Eskuitara baserri patxarako bat, bere ate ta leyoakin. Atzean eta ezkerretan zugatzak, arto soroak eta abar.

Lenengo Irudia.

I

Joxpakiña ta Axeriya.

(biyak atarian izketan)

Joxpakiña	Atzo ezkerre alako keska, kardaba, ezin egona daukat.
Axeriya	Egualdiyak egiten du ori, Illargi bera nola baidagon.
Joxpakiña	Ez; ez da orrena.
Axeriya	Orretarako, txarrangillen ura oso ona dala esan oi dute.
Joxpakiña	Zer izan biar du.
Axeriya	Katuben estiakin egintako mijiruba ere bere bizikua da.
Joxpakiña	Baita xagu-xarren koipia ere. Ez da ori gizona.
Axeriya	¡A! Orain gogoratzen naiz. Gure ausoko Patronilla keskakin egon zanian, itzayak eman zizkioten.
Joxpakiña	Bai; akullu ta guzti. Izayak esaten da, ez itzayak.
Axeriya	Dana dala. Odol belbeltza atera zioten. Patronillaren keska ta kardabak antxen zeuden.
Joxpakiña	Neria, ordia, buruko gauza bat besterik ez da.
Axeriya	Burukua ba. Oñetakua balitz badakigu zer biar dan; pasmo belarra, kataplasma batzuek ta...
Joxpakiña	Ez, ez, ez. Ez diozu ezeren antzik ematen. Ni, atzotik keskaz beterik banago, gaur gertatu biar duen, edo onezkero gertatu dan gauza baten gatik da.
Axeriya	¡A! Orretarako, Illunpeko Mañaxi, atso zar ura bizi izan balitz. Arrek askotan orrelako gauzak asmatzen zituen. Baña, iltzan ta, ezin galdetzera juango gatzazkio.
Joxpakiña	Ez noski; ta ez degu arren biarrik ere. Nik jakin nai detanen berri, oraindik ez bada ere, laxter jakingo da.
Axeriya	¿Zer da gero?

Joxpakiña Loteriya.

Axeriya ¡A! Loteriya.

Joxpakiña Bai: eguerrietako loteriya.

Axeriya ¿Ta askotxo jokutzen, e?

Joxpakiña ¡Milla pesta!

Axeriya ¡Um! ¡Ez da auntzen gaberdiko eztula! ¡Milla pesta! Askuak izan biar dute.

Joxpakiña Mordoxka bat badira.

Axeriya Bai; bata bestien gañian jartzen asita ere pilla galanta egingo luteke... ¿Ta, nolatan...

Joxpakiña Esango dizut. Orain dala sei bat urte Idiazabal'en il zitzaigun nere senarraren lengusu indiyano bat.

Axeriya Bai, indiyano erriya dala esan oi dute.

Joxpakiña Zerbait kutxu izango genuela esan ziguten, paperak atera azi zizkiguten, makiña bat jua etorri egin arazi ere bai; baña, urtiak jua eta urtiak etorri, etzan emen ezeren zantzurik. Nik oso galdutzat eman nuen.

Axeriya Orrela gertatzen omen da.

Joxpakiña Ontan, gutxiyena uste genuenian, ez bat eta ez bi, guri zegokiguna zala esanaz, milla pestako txartel, billete eder bat bigaldu ziguten.

Axeriya Ederra izan biar.

Joxpakiña Bulda añakua bazan.

Axeriya Nola ez, milla pesta osatzeko.

Joxpakiña Ertz batian, (norbaitek jarriya) izki, letra beltz beltzakin zeukan: "Tantarrantan".

Axeriya ¿Tantarrantan?

Joxpakiña Nere ura eskuetan artu nuenian esan nuen,...

Axeriya Badakit zer esango zenuen: ¡Tantarrantan!

Joxpakiña Orixe esan nuen bada.

Biyak ¡Tantarrantan!

Joxpakiña Beriala diru ori loteriyari jokatzia bururatu zitzaidan.

Axeriya Nere emaztiak orixe bera egingo zuen.

Joxpakiña Ia, uste gabeko diru orrekin, loteriyak beste uste gabeko bat ematen ote zigun.

Axeriya Nere emaztiak bezelaxe. Baxo erdi bat erateko, box kuarto eskatzen badizkat ¿nork ari atera? Ezta... ez ta... Makiñabat aldiz tramena aurrian igaro izan naiz, ta barrendik ojuka: "Axeriya baxo erdi bat" – Ez, gaitz egiten zia. – Nere artian: bestek eratia, bai. ¡Nork ordia nere emaztiari ardiapat atera?

Joxpakiña Orretan emakume zintzua bezela azaltzen da.

Axeriya Baña, dema, joku, apusturen bat danian, orduan ez dago kupirik. Azkeneko idi apusturakuan ere, ogei ta amar duro egiñak eman zizkidan. Adar motzen alde egin genuen, eta gure ogei ta amar duruak txixtua juaz an juan ziran. Gero esaten du eztarri zulotik dijuana galdua dala. ¿Ta apusturan galtzen dana irabaziya al da?

Joxpakiña Neroni ere orrelakoxia nazu.

Axeriya Bai, bai, ezagun da.

Joxpakiña Nere senarrari, aitatu besterik ez niyon egin, ta oso asarretu zitzaidan. Egunetan ta egunetan itzik egin gabe mokua extututa egon zan. Baña nik beti ziyo ta ziyo, azkenian ere, ez berialakoan baña nere gizona limurtu nuen eta Donostira juan eta billetia erosi zuen.

Axeriya Azkenian ere.

Joxpakiña Billetia etzuen ekarri; Donostian utzi zuen.

Axeriya Ederki egiña. Paper puntta oiek baserrietarako baezpako gauzak dira. Ia bestela Arano-bason ogei ta bost pestako paper arrekint gertatu zana. Txerriyak jan eta puzken bat aterako ote zan ibilli ziran, bañan alperrik. Azkenian ere ogei ta bost pestak urdai-azpikotan biurtu zitzaizkioten.

Joxpakiña Orrengatik bada. Baña, lumerua ekarri zidan: amar milla bosteun ta ogei ta bat.

Axeriya Amaika milla ta ogei ta bat milla...

Joxpakiña Ez gizona: amar milla bosteun ta ogei ta bat.

Axeriya Amabi milla...

Joxpakiña Amar milla.

Axeriya A, bai: amar milla.

Joxpakiña Bosteun ta ogei ta bat.

Axeriya Bosteun ta ogei ta bat. Ori da.

Joxpakiña Lumeru ori paper zuri aundi batian jarri azi nuen, eta oi buruan zintzilik antxen daukat. Eta oyeratzeakoan, lenago San Antoniyo'ri bezela, gabero Aita gure bat papertxo arri errezatzen diot.

Axeriya ¿Eta loteri orrek noiz atera biar du?

Joxpakiña Madrillen gaur aterako zan. Orrengatik nago bada zalantzaz beterik.

Axeriya Ez da arritzekua, ez.

Joxpakiña Onezkero Donostiyan badakite, ta emen ere laxter jakingo da.

Axeriya Nai badezu, errira juango naiz zerbait somatzen ote detan.

Joxpakiña Eskertuko nizuke. Bada ikusten dezun bezela, ori jakin artian ez daukat ezertarako kemenik.

Axeriya Beriala juango naiz ba.

Joxpakiña (Etxeko atera juanaz) Zuaz, bai, zuaz. (Etxeko atetik) Ez gero lumeruaz aztu.

Axeriya Ez, Joxpakiña, ez: Amairu milla ta...

Joxpakiña Ez gizona: amar milla...

Axeriya Egiya, egiya: amar milla bosteun ta ogei ta bat.

Joxpakiña Ori da. Ia mandatua zuzen egiten didazun.

Axeriya Orretan bai ez dezula keskik izan biar.

Joxpakiña Ikusiko degu bada. (Joxpakiña etxean sartzen da).

Bigarren Irudia.

II

Axeriya ta Narxixo.

Axeriya ¿Norengana juango ote naiz? Manttoni neskazarrak erriko izkimizki guziyak jakiten ditu. Onlako emakume edo alako gizasemen axerikeriyak jakitia balitz, iñork ez bezela esango lizkidake. Gauza oyek mingain muturrian eukitzen bai ditu. Baña, loteriya... etzait iduritzen. ¿Norengana juango ote naiz? (Narxixo atzian eskuitik ezkertera dijoa) ¡Eup, Narxixo!

Narxixo ¡Kaxo axeriya!

Axeriya ¿Zer abil baztar abetan?

Narxixo Aritxueta'ra niak, Miel Mai'k biga bat saltzeko daukala ta, zer ote dan ikustera.

Axeriya Ederki.

Narxixo Ta, i, Axeriya: ¿egazti zalla dan tokiyan,e?

Axeriya Etzeukat orain burua egaztitan.

Narxixo Zintzurra bai ordia.

Axeriya Eztare, eztare.

Narxixo ¿Buru ortan zer dabilkik ba?

Axeriya Nik... ¡Loteriya!

Narxixo ¡Mutil!... I'k diru puzken bat jokatua izan biar dek...

Axeriya Nik, ez; baña, emengo Joxpakiñak bai.

Narxixo Orrena ez dek arritzekua.

Axeriya Milla pesta jokatzan dizkik.

Narxixo A zer goxogarriya bazkal ondorako.

Axeriya Lumerua re esango diat: amalau milla... ¡A, ez, ez! Amar... amar...
Amar milla bosteun ta ogei ta bat.

Narxixo Lumero polita dek... erori ezkeru.

Axeriya Madrillen gaur aterako ukan...

Narxixo Bai; gaur dik eguna.

Axeriya Donostiyan, onezkero jakingo ditek.

Narxixo ¿Donostiyan? Emen bertan ere bai.

Axeriya ¿Bai? Eta zer atera dan: ¿nork uste dek esango lidakela?

Narxixo Ori, edozeñek. Nik, egiya esan, jaramon aundirik etziuat egiten.
Urtero, box pextako bat Donostiko arakin lagun batekin jokutzen
diat; apurren bat erori izan danian, bigaldu izan ziak, eta ezer
bigaltzen ez duenian, kito. Baña, ori, edozeñek, edozeñek...

Axeriya Edozein oietako bat esan zaidak, galdetzera jua nayan.

Narxixo Zein esango diat ba nik... A! Romualdo, eliz aurrian denda duen
begi oker ura...

Axeriya A, bai.

Narxixo Arrek jokatuiko dik beintzat. Arrek jokatziatik salduko likek andria
re ta.

Axeriya Arrengana juango nak.

Narxixo Bestia, berriz, zera, beti jokutzen duena, zera, nola dan ere, zera...

Axeriya ¿Zein?

Narxixo Zera... Patri-kokotx.

Axeriya Baita re.

Narxixo ¡A! Ta orain gogoratzen nak. Au dek onena.

Axeriya ¿Zein gero?

Narxixo Elizondoko Mai Pillipa, emakume begi gorri bat...

Axeriya Bazekiat zein dan.

Narxixo Ttottatik egiten ote duen edo ez ote duen esaten ditek.

Axeriya Bai, bai.

Narxixo Ba, orrek, Donostiyan izaten dan kabanatik, bi errialen kutsua
ekarriya dik; eta bere bi errialak erri guziyan zabaldu dizkik.
Bazekiat iru txakur txiki, jostera etortzen diran bost neskatxen
artian dituztela; Zabalegi'ko Kaximira'k bi sagar panpandoja, ta
Atanaxi Xaldagarbik kokotzeko bixarrak bi errial oyetan sartuak
izan biar dizkik.

Axeriya Orduan, orri zerbait erortze ezkeru, bibotiak izango dituk.

Narxixo Badakik, e: diru gutxi, baña jende askoren artian.

Axeriya Ori dek. Orrentxen gana juango nak.

Narxixo Iñork jakite ezkeru orrek jakingo dik.

Axeriya Baniak ba.
Narxixo Ikusi arte orduan.
Axeriya Agur, Narxixo.
(Juaten dira: Axeriya atzeko eskuitik eta Narxixo ezkerretik).

Irugarren Irudia.

III

Tiburtxio, bereala Joxpakiña. Azkenean Martxela.

(Tiburtxio atzean eskuitik azaltzen da, ta etxera begiratuaz gelditzen da).

Tiburtxio Martxela or egongo da. ¿zer egiten ote du? Zer ari dan, ate txirrikotik ikustia gatik bi begiyak emango nituke; bere itza entzutia gatik, arpegiya ikustia gatik, bere onduan egotia gatik... *(Joxpakiña, otar bat barazkirekin etxetik ateratzen da)* Ama... *(Tiburtxio'k gordetzera egiten du. Joxpakiñak otarra lurean uzten du).* Andre Joxpakiña... *(Joxpakiñak Tiburtxio ikusten du).*

Joxpakiña Tiburtxio... ¿zer egiten dek or?

Tiburtxio Sorora ni joan ta...

Joxpakiña ¿Emendik zuen sorora?

Tiburtxio Bai, andria: Errekaburun barrena.

Joxpakiña Bai, bai. Ator aurrera, mutil, ator aurrera.

Tiburtxio Ez andria. Sorora juan biar det eta.

Joxpakiña Ator aurrera; kuxkuxian abillela bazekiau ta. *(Tiburtxio aurreratzen da).*

Tiburtxio ¿Ni? Ez andria.

Joxpakiña Mutillak ez dik orrenbesteañoko lotzatiya izan biar.

Tiburtxio Lotzatiya... ez andria; baña, nola sorora juan biar detan...

Joxpakiña Gure Martxelen ondotik abillela bazekiau, ta guk ori ondo arkitzen diagu.

Tiburtxio Itz oyekin zer barrengo lasaitasuna ematen didan, andre Joxpakiña.

Joxpakiña Bai, Tiburtxio, bai. Langillia aiz ta ori dek guk biar deguna.

Tiburtxio Langillia, bai andria. Gurasuak ez didate besterik erakutzi; ta gogotsu lan egiten det, eta pozik lanian aritzen naiz.

Joxpakiña Beste asko bezelako tramena zalia ez aizela ere bazekiau.

Tiburtxio Batere ez, andre Joxpakiña. Neretzako pozik aundiyenak nere etxian, neriakin izan ditut. Iduritzen zitzaidan, nik biar nuen

guziya etxian neukala. Bañan, igande arratsalde batian, besperatetik ateratzen Martxela ikusi nuen; ta biar nuen guziya etxian ez nuela, orduan ezagutu nuen.

- Joxpakiña Ez noski; ik biar dekana etxe ontan ziok.
- Tiburtxio Bai, andria.
- Joxpakiña Ta ez nere alaba dalako, baña, nexka elizakoya, ona, langillia ta zintzua dek.
- Tiburtxio Ondo igarriya nago.
- Joxpakiña Zorionekuak izango zerate.
- Tiburtxio Orretan ziur naiz.
- Joxpakiña Gurekin ere ez diat uste ezin eramanik izango dekanik.
- Tiburtxio Ez andria, ez.
- Joxpakiña Badakit, ni jeniyo bizi xamarrekua nak, aurretik esatia obia dek, ta aldarte txarrekua nagonian, egingo diat onenian zakarkeri edo purrustaden bat.
- Tiburtxio Ez dio ajolik orrengatik.
- Joxpakiña Biar bada, uxiatu ta juateko esan ere bai; bañan orrelakuan ik ez dek juan biar, ik ez dek Martxela utzi biar.
- Tiburtxio Ez nuke ezerengatik utziko.
- Joxpakiña Ez ta bultzaka asten banaiz ere, ezta, anima salbo belarriondoko bat ematen banikek ere.
- Tiburtxio Ez andria, ez. Ni beti planto emen.
- Joxpakiña Ori dek. (*Une onetan, Martxela baserriko atean azaltzen da, ta Tiburtxio ta biyak keñuka asten dira*) Taju gabeko gauz oyek, aldarte txarrak ematen dituelako bai dituk, ez norbera orrelakua dalako, bañan... baatik... (*Joxpakiña'k beste biyen keñuak ikusten ditu*) Beste pixpiliña re emen aldegu... Atoz, atoz, alkarrekin egoteko zoratzen egongo zerate ta. (*Martxela aurreratzen da*)
- Tiburtxio Eskerrikasko, andre Joxpakiña.
- Joxpakiña Emen gelditzen zerate. Baña, ez gero neri geyegi luzatu; onek etxian zer egin asko zeukak gero.
- Tiburtxio Ni ere sorooan atzaparrak bete lan utzita etorri naiz.
- Martxela Beriala bukatuko degu.
- Joxpakiña Ia bada. (*Baserrira juan eta atetik*) Tiburtxio: baatik zer esan diatan, e.
- Tiburtxio Bai andria, bai. Bei pariakin arrastaka ere ez naute emendik aterako.
- Joxpakiña Ori dek gizonak bezela itzegitia. (*Joxpakiña baserrian sartzen da*)

Laugarren Irudia.

IV

Tiburtxio, Martxela. Barrendik Joxpakiña.

- Martxela ¿Zer esan dizu amak?
- Tiburtxio Oso ondo artu nau. Bazenekei zer poxa daukatan.
- Martxela Nik ere bai.
- Tiburtxio Ez nik aña ordia.
- Martxela Zuk zuria ta nik neria.
- Tiburtxio Ez; zuk zuria ta nik biyena.
- Martxela Ori xelebria zera Tiburtxio.
- Tiburtxio Kanpantorreko kanpana baño xelebriagua.
- Martxela ¿Zergatik?
- Tiburtxio Kanpantorreko kanpana beti tilin, tilin, tilin, aritzen dalako; ta ni berriz zuri kontu potxoluak esaten; talan, talan, talan.
- Martxela Oyek aterakayak dituzu, Tiburtxio.
- Tiburtxio Zu parrez ikustiagatik, Martxela.
- Martxela Ori da ori, mutillen sasoya, ori...
- Tiburtxio Bai; zuk beti esaten dezu: ori, ori, ori; ta, Txuri, gure txakurrak berriz: au, au, au...
- Martxela Bat esan ordurako bestia. Betiko badituzu, Tiburtxio.
- Tiburtxio Betikua gure baratzako pikua.
- Martxela ¡Pikua!
- Tiburtxio Bai, pikua; ta txori bat adar gañian jartzen danielan, egiten du: pik, pik, pik. Eta nik esaten diyot: ua, ua, ua.
- Martxela Baña, ¿non gordetzen dituzu oyek guztiyak, Tiburtxio?
- Tiburtxio Kol... kol... kol...
- Joxpakiña (*Barrendik*) ¡Martxela! Naikua dezute.
- Martxela Bai, ama. Banua beriala. (*Tiburtxio'ri*). Igandian etorriko zera, e?
- Tiburtxio Bai, Martxela; bespera ondorian, plazara juan eta etorri ibilliko naiz.
- Martxela ¿Zergatik bertan gelditzen etzera?
- Tiburtxio Tramenako atian dauden mutillak par egiten didatelako.
- Martxela ¿Ta zer?
- Tiburtxio Neri, mutillen parrak ez didate onik egiten. Zuriak bai, Martxela.

Martxela Zure onduan egon ezkerro parrik egin gabe egoten ez da errex.

Tiburtxio Ezta zure onduan ere.

Martxela Esaera batzuek badituzu, Tiburtxio...

Tiburtxio Ta zuk Martxela, algara batzuek... garak ez ¡gariyak dira!

Martxela ¡Gariyak!

Joxpakiña (*Barrendik*).¡Martxela! Naikua dezutela.

Martxela Bai, ama; oraintxen nua. (*biyak baserriko atera biltzen dira*) (*Tiburtxio'ri*) Igandian dantzan egingo degu, e?

Tiburtxio Bai; pixka bat illuntzen asten duenian zure gana juango naiz.

Martxela Betiko tokiyan itxoingo dizut.

Tiburtxio A zer arin-ariñak dantzatuko ditugun.

Martxela Baña, ez parrik egin azitzera, e?

Tiburtxio Ez; jendien aurrian ez. ¡Zer esango luteke!

Martxela Orrengatik bada.

Tiburtxio Gero, etxerakuan esango dizkizut: bidian, bi idi an zeudela ta...

Martxela ¡Bi idi!

Joxpakiña (*Barrendik*) Baña, Martxela: etorriko alzera edo ez.

Martxela Emen naiz, ama. (*Tiburtxio'ri*) Igande arte, Tiburtxio.

Tiburtxio Igande arte, Martxela.
(*Martxela baserrian sartzen da*)

Bostgarren Irudia.

V

Tiburtxio, Axeriya, Narxixo, Miel Mai ta Joxpakiña.

(Tiburtxio etxe aldera asten da, bañan beti baserrira burua biurtuaz. Atzera irixtean, eskuitik lasterka, ta eskuan paper mutur bat duela Axeriya azaltzen da, ta uste gabean Tiburtxio lurrera botatzen du).

Axeriya ¡Erori dala! ¡Erori dala!. (*Narxixo ta Miel Mai, atzeko ezkerretik etortzen dira ta Tiburtxio'ri altxatzen laguntzen diote*).

Narxixo Erori dala ikusi diagu.

Miel Mai Erori, ez; bota egin dik.

Axeriya (*Baserriko atera juanta*) ¡Erori dala! ¡Erori dala! ¡Joxpakiña!
¡Erori dala! (*Joxpakiña baserriko atean azaltzen da*).

Joxpakiña ¿E?

Axeriya ;Erori dala!

Joxpakiña ¿Gure lumerua?

Axeriya Bai: hamabost milla...

Joxpakiña ¿E?

Axeriya Ez, ez: amar milla... Amar milla bosteun eta ogei ta bat. Ona emen papera. (*Joxpakiñari papera ematen dio*) (*Narxixo'ri*) Mai Phillipak eman ziak.

Narxixo Esan diat arrek jakingo duela.

Joxpakiña (*Papera irakurriaz*) Amar milla bosteun ta ogeita bat. (*Paperari musu emanaz*) Nere *Aita guriak* ez dira alperrik izan.

Narxixo Ta, ¿zer esan dik? Asko erori zayola edo...

Axeriya Bere bizikuak.

Joxpakiña ;Ai, Jaungoiko maitia! Zer esan ez dakitala gelditu naiz.

Axeriya Esan du dala... premiyo... premiyo... malluketako zerbait da.

Joxpakiña ¿Malluketa?

Narxixo Etziuat antzik ematen.

Miel Mai Ez ta nik ere.

Tiburtxio Malluketa...

Axeriya Malluketako zerbait, bai: mallu edo malla...

Joxpakiña Ez dakigu zer izango dan.

Narxixo Nolanai dala ere, zorion.

Miel Mai A! Bai. Zorion.

Tiburtxio Andre Joxpakiña: zorionak.

Joxpakiña Eskerrikasko.

Axeriya Nola esan duen ere... premiyo mallu edo, premiyo malla edo, premiyo mallo edo... ez dakit nik.

Narxixo Etxikan ba esango: premiyo mayorra.

Axeriya ;Ori, ori! Banekiyen nik malluketako zerbait zala.

Miel Mai Aldian abillen.

Narxixo Orduan, Joxpakiña, bere biziko diruak badituzu.

Joxpakiña ¿Egiyetan?

Narxixo Mandiyuan ezin kabi ala.

Joxpakiña ;Jesus, milla bider!

Axeriya Sekulakuak dirala esan dizut.

Narxixo Ia, Eguerrietako premiyo mayorra.

Miel Mai ¿Ori ez da gordua deitzen diyotena?

Narxixo Etzakala gordua esan , Esantzak lodiya edo gizena; ta nai badek tripa aundiya.

Miel Mai Nik ala aitu izan diat eta...

Narxixo Bada, izango dituzu... bai... Zazpi milloi t'erdi pesta. ¡Pestak gero!

Joxpakiña Erotzeko re bada. Barrenak jira egin biar didala iruditzen zait.

Axeriya Ez dezu orrengatik eztutu biar, Joxpakiña. Jaungoikoaren laguntzarekin larritasun abek eramaten dira.

Joxpakiña Zer esan ere ezin asmatu det. (*Axeriya'ri*) Zu ere, gizarajo ori nekatuko ziñan.

Axeriya Asnasa artzeko betik gabe etorri naiz.

Joxpakiña Gizarajua. Ba guztiyai ere ondo etorriko zaizute ta...

Narxixo Ez ezertan ibilli, Joxpakiña.

Joxpakiña (*Baserrira ojuka*) Martxela: ia gizon abei ogiya, gazta ta ardua ematen dizkiezun.

Axeriya Eskerrikasko, Joxpakina. (*Bestia*) Guazemazute.
(*Axeriya baserriyan sartzen da. Ondoren Miel Mai*).

Seigarren Irudia.

VI

Lenguak, Antton Miel, Martxela. Azkenian Joxe Ramon.

Narxixo Ikaragarrizko dirutzak badituzu, Joxpakiña.

Joxpakiña Bai, bai; neri beintzat ikara ezurretaraño sartu zait.

Narxixo ¿Ikara? Onelakuan poxa izan biar da.

Joxpakiña Poza ta ikara; biyak, Narxixo. (*Atzeko ezkerretik Antton Miel azaltzen da*)

Antton Miel ¿Zer degu, etxeakoak.

Narxixo Ator onera, Antton Miel. (*Antton Miel aurreratzen da*).

Antton Miel ¿Zer da?

Narxixo Begira akiyok Joxpakiñari, eguarriyetako premiyo mayorra erorita.

Antton Miel ¡Makallon krixketa! Baña ¿egiya al da ori?

Tiburtxio Bai, bai; orren lumeruari erori zayo.

Antton Miel (*Joxpakiña marruzkatuaz*). ¡Joxpa Akiña! ¡Makallon krixketa!
¡Ori re badeu! (*Narxixo parrez baserrian sartzen da*)

Joxpakiña Utzi nazazu, gizona.

Tiburtxio	Utzi zayozu, Jainkuen izenian. (<i>Axeriya gazta ta ogiya eskuetan dituela baserritik ateratzen da</i>)
Joxpakiña	Lertu biar nau onek.
Antton Miel	¡Makallon krixketa! (<i>Axeriyak Antton Miel, Joxpakiña gandik ateratzen du</i>).
Axeriya	Aizak, i: arrantxua an barrenen daukak.
Antton Miel	Baña, aitu al dek: Joxpakiñari premiyo mayorra. ¡Makallon krixketa! (<i>Antton Miel'ek Axeriya'ri eltzera egiten dio, baña onek bigaltzen du</i>).
Axeriya	An dagola arrantxua. Ua emendik.
Antton Miel	(<i>Baserrira juanaz</i>) ¡Premiyo mayorra! ¡Makallon krixketa! (<i>Baserrian sartzen da</i>)
Joxpakiña	Ori gizon aspergarriya.
Axeriya	Ori orrelakua dezu. Bere nai ona ez daki erakusten ez bada estutuaz, marruskatuaz...
Joxpakiña	Ni beintzat ondo marruskatu nau.
Axeriya	Etxian asto koxkor bat jaio zitzaieten, bere arrekin txoraturik zegon, eta egin zizkan teinkadakin belarri bat oso osorik atera zion.
Joxpakiña	Neri re, ez dakit nola bizkar ezurra atera ez didan.
Axeriya	Orrelakua da ta. (<i>Miel Mai gazta ta ogiya eskuetan dituela baserritik ateratzen da</i>).
Joxpakiña	(<i>Tiburtxio'ri</i>) ¿Ik ez al dek juan biar txurrit bat egitera?
Tiburtxio	Otorrutik kanpora ez det artzen.
Joxpakiña	Mutil txintxuak orrela biar dik. I izango aiz, i, gure etxerako.
Axeriya	¿Ta nun degu, Joxe Ramon?
Joxpakiña	Gizarajua. Etortzen danian, arrek artu biar duen zarrara.
Axeriya	¿Ez al da etxian? (<i>Narxixo gazta ta ogiya eskuetan dituela baserritik ateratzen da</i>).
Joxpakiña	Ez; bazkal ondutan Goiko errota xarrera juan da, ango aberiak nola dauden ikusi biar duela ta... baña onezkero emen izan biar du.
Axeriya	Gizarajuari poz bat emateko, etortzen danian, ziririzko batzuek bota biar genituke.
Narxixo	Zer asi biar dek orain, ziririzko billa. Emen, inguruan, izango dek eskopeta duenen bat, ta tiro batzuek bota ditzala.
Miel Mai	Errotaburuko Tomaxek bi kañoiko eder bat badik...
Narxixo	Ba, dijuala bat ara...
Tiburtxio	Ni juango naiz.
Axeriya	Bai. Esan akiyok Tomax'i, Joxe Ramon ikustian lau tiro botatzeko.
Tiburtxio	Beriala. (<i>Lasterka juaten asten da</i>)

Narxixo ;I: ago, ago! (*Axeriyari*) Zorua dek ura, ta Joxe Ramon'i berari botako lizkiokek tiruak. (*Tiburtxiori*) Esan akiyok, tiruak gora botatzeko, gora.

Axeriya Ziririzkuak balira bezela.

Tiburtxio Bai, bai. (*Atzeko ezkerretik lasterka juaten da*)

Miel Mai Orrela, ondo zio. (*Axeriya baserrian sartzen da*)

Narxixo Bai, noski. Bestela ia zer negarra jarriko genuken.

Miel Mai Ez degu orain negarrik biar, Joxpakiña.

Joxpakiña Ez, ez; bestela ere naikua negar izaten da.

Miel Mai Ori esan. (*Miel Mai baserrian sartzen da*)

Narxixo Orain, egun on batzuek igarotzera egin biar da.

Joxpakiña Lenago re ez giñan gaizki bizi, baña...

Narxixo Orain, dirutza orrekin guziakin obeto ordia. (*Antton Miel gazta ta ogiya eskuetan dituela baserrik ateratzen da*)

Antton Miel ;Makallon krixketa! ;Premiyo mayorra! ;Ez dek ezer ere!

Narxixo I, orain ago ixilik, e?

Antton Miel Bai, bai.

Joxpakiña Orrek esan ta gogoratzen naiz. Papera lumeruakin nere oiburuan an dago, ta Martxelak ekarri dezaidala Joxe Ramon datorrenian erakusteko.

Narxixo (*Antton Miel'i*) Martxelai esan akiyok oi buruko papera ekartzeko.

Antton Miel (*Baserrira ojuka*) Martxelai: oi buruko papera ekartzeko.

Axeriya (*Barrenen ojuka*).Martxelai: oi buruko papera ekartzeko.

Miel Mai (*Barrenen ojuka*) Martxelai oi buruko papera ekartzeko.

Narxixo Arrera on bat egin biar diogu Joxe Ramoni. (*Narxixo baserrian sartzen da*)

Joxpakiña Bai, gizarajuari.

Antton Miel Nik atzaparretan arrapatzen detanian, a zer marruzkaldiya eman biar diyotan.

Joxpakiña Astokeririk ez egitera, e?

Antton Miel (*Joxpakiñari eldu ta marruzkatuaz*) Elduko diyot onla, ta, ;Makallon krixketa!

Joxpakiña Egon zaitia geldirik, gizona. (*Axeriya baserrik ateratzen da*)

Axeriya I, i: ;geldirik egongo al aiz?

Antton Miel Au dek, Joxe Ramon etortzen danian, arri egingo diyodana erakustia gatik.

Axeriya Naikua ikusi diagu ba, ta orain ago geldirik.

Antton Miel Barrenak ematen duena dek au... baatik...

Axeriya Barrenen, an ematen ditek eta ua ara.

Antton Miel ¡Makallon krixketa!

Axeriya Ua, ua. (*Antton Miel baserrian sartzen da*) Ori aberia ori.

Joxpakiña Purrukatu biar ninduela uste nuen.

Axeriya Izan ere, orren atzaparretan erori ezkerero... (*Martxela paperarekin baserritik ateratzen da*)

Martxela Ama: ona emen papera. (*Papera amari ematen dio*)

Joxpakiña Ekatzu alaba, ekatzu. Amaika Aita gure eder erreztatutako papera. (*Paperari muñ egiten dio*) (*Tiburtxio atzeko ezkerretik sartzen da*)

Tiburtxio Tomax'ek esan bezela botako dituela.

Axeriya Ongi ziok.

Tiburtxio (*Martxelari*) Martxela...

Martxela Tiburtxio... (*Biyak izketan jarraitzen dute*) (*Miel Mai baserritik ateratzen da*).

Joxpakiña Nere senarra etortzen danian, paper au erakutziyaz azalduko natzaio.

Axeriya Ta beriala zer dan antzemango dio.

Joxpakiña Bai zera. Dan aña ez du beintzat usteko. Jokurako oso otza dezu. (*Narxixo baserritik ateratzen da*)

Axeriya Guk ere, Joxe Ramon etortzian zerbait oju egin bear genikek.

Narxixo A, bai! Egin genezakek: ¡Biba loteriya! (*Antton Miel baserritik ateratzen da*)

Miel Mai E!... Biba etziok ondo. Izatekotan: ¡gora! Euskera jatorragua dek.

Narxixo (*Antton Miel'i*) ¿Ik zer oju egingo ukek: ¡biba! edo ¡gora!

Antton Miel ¿Nik? ¡Makallon krixketa!

Axeriya Bazekiat zer oju egin biar diyogun, ara: ¡Tantarrantan!

Miel Mai ¿Zer da gero ori?

Axeriya Loteriko billetia erosi zan milla pestakuak zeukana.

Miel Mai Ederki ziok.

Narxixo ¡Badakizute zer oju egin biar dan: ¡Tantarrantan!

Axeriya Ia nola egiten degun guztiyak batian.

Guztiak ¡Tantarrantan!

Axeriya Guazemak orain.
(*Bata bestien onduan labak baserri aldera egiten dute, baña atera irixtean bi tiro entzuten dira, ta guztiyak biurtzen dira*)

Axeriya ¡Emen dek!

Joxpakiña ¡Emen da!

Axeriya	Jarri gaitian.
Narxixo	Bakizute zer oju egin biar dan (<i>Joxe Ramon'i arrera egiteko eran jartzen dira</i>) (<i>Beste bi tiro entzuten dira</i>) (<i>Joxe Ramon atzeko ezkerretik azaltzen da</i>)
Joxe Ramon	Zer ote dute gaur tiro oyekin. (<i>Joxe Ramon aurreratzen da</i>)
Guztiak	¡Tantarrantan! ¡Tantarrantan! ¡Tantarrantan!
Joxe Ramon	Nere etxean guztiak erotu egin ote dira.
Guztiak	¡Tantarrantan! ¡Tantarrantan! ¡Tantarrantan!
Joxe Ramon	¿Zer dezute karraxi oiekin?
Joxpakiña	Loteriya erori zaigula.
Narxixo	Premiyo mayorra.
Axeriya	Amazazpi milla milloi.
Joxe Ramon	(<i>Ikaraturik</i>) ¿E? ¡Loteriya! ¡Loteriya!... (<i>Miñak ematen dio ta erortzera dijua. Bestiak eltzen diote</i>)
Joxpakiña	¡Nere senarra!
Martxela	¡Aita!
Narxixo	¡Joxe Ramon!
Antton Miel	¡Makallon krrixketa!
Axeriya	Orain bai egin degula: ¡Tantarrantan!

Ezkutazapia jexten da.

Lenengo Egintzaren Amaia.

Bigarren Egintza.

Iruditegia, lenengo egintzan bezela.

Lenengo Irudia.

I

Joxpakiña ta Axeriya. Azkenian Narxixo.

- Axeriya ¿Ta, nola dago Joxe Ramon?
- Joxpakiña Ondo. Gaba ainbestian igarua izan biar du; ta goizian oso xuxpertia iduritu zait.
- Axeriya Alare, alare...
- Joxpakiña Badakizu, nola orrek jokutik ez duen beñere itxaropenik izan, batetan entzun zuenian gure uste gabeko zori neurri gañeko au, barrenak jira egin zion.
- Axeriya Zilipurdi egiteko re bada.
- Joxpakiña Neroni re gau guzian begirik itxi gabe egon naiz. Goiz aldera, luak artu nau nunbait... eta ¡ayek ametsak! Alde guzietan milla pestako billetiak ikusten nituen.
- Axeriya Nayago nuke neronek ere orrela ikusi izan banitu; ta ez izan detan ametsa.
- Joxpakiña ¿Zer amets izan dezu bada?
- Axeriya ¿Nik? Emaztiak erratzaren kirtenakin ebañ ebañ egiten ninduela. Ta karraxika oju egiten zidala: zurrutak kenduko dizkizut nik. Ta guziya emen artu nuen baxo erdien baten gatik izango zan.
- Joxpakiña Baña, zuk amets ori oyeratu baño len izango zenuen.
- Axeriya Oyeratu baño len, eta oyeratu ta gero re bai.
- Joxpakiña Bada, nik, milla pestako billetiak nituen. Maindiriari teink egiten niyon eta billetiak parra parra azaltzen ziran. Lastaidari eltzen niyon, eta txurikiñen orde billetiak arkitzen nituen. Eta gauza arrigarriya, billete guziyak, azpikuak eta gañekuak, batian ikusten nituen; guziyak milla pestakuak ziran, eta danak ertz batian jarriya zaukaten: tantarrantan.
- Axeriya ¡Zorioneko tantarrantan! Orretzek buru guziyak nastutu biar dizkigu.
- Joxpakiña Ni beintzat ondo nastutu nau. Ez dakizu zer gaba igaro detan.

Axeriya Bai, baña, emen gaude gu. Badakizu, Joxpakiña, zerbait biar badezu, ez dezu agindu besterik.

Joxpakiña Zure nai ona asko eskertzen dizut.

Axeriya Triputz edo pixtola edo beste gaitz bat danian alkarri laguntzen zaio; ta onlako naigabietan ez laguntze ezkerro, ¿ausoak noizko dira?

Joxpakiña Gizarajo orrek alegiñak egiten dituzu beintzat.

Axeriya Baita egingo re.

Joxpakiña Ta, ¿oroitzen alzera, zenbat esan zuen Narxixo'k erori zitzaigula?

Axeriya Askuak, esan zituen arrek, askuak.

Joxpakiña ¿Baña, zenbat asko?

Axeriya Nik uste det, amazazpi milla milloi esan zituela.

Joxpakiña Etzan orrenbeste. Ta gañera, isatza re bazuen.

Axeriya ¿Narxixo'k?

Joxpakiña Ez; arrek esan zuen diruak.

Axeriya Egiya esan, ez naiz batere oroitzen.

Joxpakiña Ikusten det, atzo gertatutakoaz, gauza batez bakarrik oroitzen zerala.

Axeriya ¿Zer gero?

Joxpakiña Emaztiaren erratzen kirtenaz.

Axeriya Ametsetan zan ordia, ametsetan.

Joxpakiña Bai, bai. (*Narxixo atzean eskui aldean azaltzen da*)

Axeriya A! Ara bera! Ator Narxixo, sartu adi. Bi zagi or zioztik, neronek ekarriyak; eta beste bi ekarriko dituztela. Ator... (*Axeriya baserrian sartzen da. Narxixo Joxpakiña gana alderatzen da*)

Bigarren Irudia.

II

Joxpakiña ta Narxixo.

Joxpakiña Adizazu, Narxixo...

Narxixo ¿Zer egin du Joxe Ramonek?

Joxpakiña Ondo dago.

Narxixo Obe, obe.

Joxpakiña ¿Ta, zenbat esan zenuen erori zitzaigula?

Narxixo Zazpi milloi t'erdi pesta. ¡Pestak gero!

Joxpakiña Bai, bai. ¿Ta zenbat bezela egiten dute?

Narxixo Zenbat...

Joxpakiña Antzik ematen ez bai diot, zenbat izan liteken.

Narxixo Nola esango dizut ba nik... Ara... ar zazu milla pestako billete bat... Loteriyarako eramán zenutena bezelakua... ¿Nola jartzen zuela tarrapatatan eo...?

Joxpakiña Tantarrantan.

Narxixo A, bai; tantarrantan. Ba jarri billete oietako bat lurrian, ta bestia bere gañian, ta bestia, ta bestia; amar, ogei, eun, bosteun, milla osatu arte. Milla millako, e?

Joxpakiña ¡Milla millako! Zutik egoten ere lanak ditu.

Narxixo Bai; Axeriyak arrapatuko balitu ez litzake zutik egongo.

Joxpakiña ¡Milla millako!

Narxixo Bai: oyetxek dira milloi bat.

Joxpakiña ¡Milloi bat!

Narxixo Beriala, beste pilla bat. Beste milla millako. Ta bestia, ta bestia: zazpi pilla osatu arte. Zazpi milla millako.

Joxpakiña Ori ez da nere buruan sartzen.

Narxixo ¿Zure buruan? Esan nizun ba: ezta mandiyuan ere.

Joxpakiña Neurrik ez du onek.

Narxixo Ondoren beste pilla...

Joxpakiña ¿Oraindik ere geyago?

Narxixo Milloi erdiya.

Joxpakiña ¿Onek ez al du azkenik?

Narxixo Bosteun millako.

Joxpakiña Baña oyek, nik ametsetan ikusi nituenak baño re geyago dira.

Narxixo Oyek ezin esan ala dituzu.

Joxpakiña Erotzeko re bada.

Narxixo Ara: milla pestako paper oyek guztiyak urretan biurtu, asi urria jaten, babarrun aliak balira bezela. Gau ta egun urria jan eta urria jan. Zarrez il, urte askoekin, eta batere jan dezutenik ez litzake igarriko.

Joxpakiña Orduan, inguru abetan, ¿gutxi izango dira orrenbeste dutenak?

Narxixo ¿Inguru abetan? Probintziyan aberatzenetako bat zu izango zera.

Joxpakiña ¡Jesus milla bider! Nork esan biar zidan...

Narxixo Nik esan biarko nizun noski, ta orra esan.

Joxpakiña Asko eskertzen dizut, Narxixo. Ori zan nik jakin nai nuena. Orain txurrut bat artuko dezu.

Narxixo Eskerrikasko. Orain ez det betik, baña gero etorriko naiz.
Joxpakiña Nai dezunian.
Narxixo Zuk ere agindu.
Joxpakiña Bai, bai.
Narxixo Agur
(*Narxixo atzeko ezkerretik juaten da*).

Irugarren Irudia.

III

Joxpakiña ta Axeriya.

Joxpakiña Nere bururako egiten diranak ez dira. Boxt kuarto, ta zazpi txakur txiki, ta amar txakur aundi, ta orrelakuak bai; baña milla millako ta oyek, ez dira nere bururako egiten diranak, ez.

Axeriya (*Baserritik ateriaz*). ¿Narxixo jua al da?

Joxpakiña Oraintxe.

Axeriya Esan diyot ba barrenara etortzeko.

Joxpakiña Ez omen zuen betik.

Axeriya Orretarako, guk beintzat, beti izaten degu beta.

Joxpakiña Zuk bai. Esan dit, zenbat erori zaigun.

Axeriya Nik esan bezela, e?

Joxpakiña Ez; zazpi milloi t'erdi dira. Ikaragarriak dituzu. Ezin txinixtu aña. Ara: asi jartzen milla millako, ta millako milla...

Axeriya Milla millako, ta millako milla; ori bai dala katramilla.

Joxpakiña Dan bezela esaten ez nizuke asmatuko. Nik ametsetan ikusi nituen milla pestako billetiak baño geyago dira. Probintziyan aberatzenetako bat ni izango omen naiz.

Axeriya Orduan, zu, erregiñaren ondorengua, edo orrelako zerbait izango zera.

Joxpakiña Orrelako zerbait.

Axeriya Nork esan, Joxpakiña orretaraño iritxiko zala.

Joxpakiña Ta orretxek kardaba berri bat sortzen dit. Gau guziyan nere orrekin ibilli naiz, eta orain ere ezin burutik bota det.

Axeriya ¿Zer gero?

Joxpakiña Gu orren aberatzak izanik, etzaidala iruditzen Tiburtxio gure alabarentzat diñakua izan litekenik.

Axeriya Gauzak ala dirudi.

Joxpakiña Mutilla langillia dala... lanetik bizi biar dutenentzako ori ondo datorrela ez det ukatuko; baña gu bezelako aberatz purrukatuentzat...

Axeriya ¡Lana! Milla millako oyek kontatzen ere badezute lanik asko.

Joxpakiña Mutill ona, zintzua dala... ¿ta zer? ¡Gure Martxela bezelako nexka bat, nekazari arlote batekin ezkonduko al det bada! Orri re begiratu biar zayo.

Axeriya Zeri begiratuba badaukazu zuk oraintxe.

Joxpakiña Bai bada. Ori berak ere ezagutu biar luke. Lengo konturik ez dago orain gure etxian.

Axeriya ¿Lengo kontuak? Noiz ikusi dira emen, bi zagi etxian, ta beste bi bidian ta...

Joxpakiña Ez, ez; nik mutil orri garbi esango diyot: emenguak egin dituela, ta nai duen aldera jo dezala.

Axeriya Ez du berialakuan jua naiko.

Joxpakiña Alperrik ibilliko da bada. Ez diyot utziko. Aidian bigalduko det.

Axeriya Aidian ezezik arrastaka re lana naikua emango dizu.

Joxpakiña Bestela ezin bada, arrastaka bialiko det.

Axeriya Ala biarko.

Joxpakiña Nik, nere alabarentzat beste zerbait naiko nuke. ¿Badakizu zein izango litzaken nere gogokua? Sendalari gaztia, On Braulio...

Axeriya Sendalari...

Joxpakiña Bai; ezkongaya balitz.

Axeriya Ezkondua da ordia, ta iru seme alabakin.

Joxpakiña Badakigu. Baña, nik orrelakoxe bat naiko nuke nere alabarentzat.

Axeriya A! Badakit zein izango litzaken Martxelarentzat senargai polita. ¡Polita gero!

Joxpakiña ¿Zein?

Axeriya Gure etxejabiaren alaba zarrena.

Joxpakiña ¿Alaba?

Axeriya Mutilla balitz.

Joxpakiña Mutilla balitz...

Axeriya Bai, ba. Maite deitzen diyote.

Joxpakiña Nik ere nere alabari makiñabat aldiz esan izan diyot: nere maite, nere kuttuna, nere biyotzeko koxkarabillua...

Axeriya Bai, baña, arrek izena du ordia.

Joxpakiña Zer izan biar du izena.

Axeriya Bayetz. Lenago Maria Teresa deitzen ziyoten, eta orain Mai... te.

Joxpakiña Ez det beñere entzun.

Axeriya Orain arte ez noski, milla millakoik etzenuelako, baña, orain, zuk ere ikasiko dituzu bai. Ez dago toki txarrian.

Joxpakiña Ez dakigu bada.

Axeriya Baña, politez, besterik ez bezelakua da.

Joxpakiña E...?

Axeriya Expañak gorri gorriyak eukitzen ditu, piper morruen gorriya baño gorriyaguak; begiyak, jira guziyan beztuak baleude bezela, masallak arrosa kolorekuak, eta illia len beltza zuen eta orain urria bezelaxe jarri zaio.

Joxpakiña Eta agure braka-mantal onek, nola begiratzen dien neskatxa gaztai.

Axeriya Arren politasuna ikustia gatik.

Joxpakiña ¿Emaztiari ez al diyozu ikusten?

Axeriya Nik ez beintzat.

Joxpakiña Ez; zuk emaztiari ez diyozu ikusten erratzaren kirtena besterik.

Axeriya Ametsetan, ametsetan.

Joxpakiña A, bai. Ametsetan.

Axeriya Baña, etxejabearen alaba zarrena polita dala,... Ez da alako maramik.

Joxpakiña Begira ba: nik ez det nai nere alabarentzat marama dirudien senargairik. Nolakua naiko nuken, esan dizut.

Axeriya Bai, bai.

Joxpakiña Ta, beste pilixtiyo ori, Tiburtxio, ikusten detan bezelaxe, aidian bigalduko det.

Axeriya Edo arrastaka.

Joxpakiña Edo arrastaka. (*Baserri aldera egiñaz*) Ta itza ta pitza, etxia utzita daukat eta...

Axeriya Nik ere bai.

Joxpakiña Axeriya; kontuz ibilli zaitia. Badakizu amets txarrak egiten dituzula.

Axeriya Muñ eman besterik ez det egiten ordia.

Joxpakiña Ez dakit ba.

Axeriya Bai, bai. (*Biyak baserrian sartzen dira*).

Laugarren Irudia.
IV
Tiburtxio ta Martxela.

(Tiburtxio atzeko eskuitik azaltzen da)

- Tiburtxio Zer egin ote du Martxela'k. Gaxua. Arren negarrak, atzo aita korderik gabe ikusi zuenian. Ni re geroztik ezertarako gogorik gabe nago. *(Martxela baserriko atian azaltzen da)*
- Martxela Tiburtxio.
- Tiburtxio Martxela. *(Biltzen dira biyak)* ¿Aita nola dago?
- Martxela Ederki. Gaizkieza igaro zayo.
- Tiburtxio Jainkuari eskerrak. Bada ama esaten aritu zait, aita nola zegon jakitera etortzeko ta etortzeko...
- Martxela ¿Zuk ez al zenuen etortzeko asmorik?
- Tiburtxio Asmorik ez, baña gogua bai. Badakizu, nere gogoz ez nitzakela emendik aterako. Ta, gañera onelakoetan. Gaxo ori nola egongo zian gogoratuta, gau guziyan begirik itxi gabe egon naiz.
- Martxela ¿Ez al dezu lorik egin?
- Tiburtxio *(Biatza erakutziaz)* Ez ta onenbeste ere.
- Martxela ¡Oi! ¡Nik bai!
- Tiburtxio Orretzek pozten nau. Zuk egin badezu, nerien gatik ez dit ajolik.
- Martxela Bada, nola ni oyeratzerako aitak onera eman zuen, lo batian gau guziya igaro det.
- Tiburtxio Atsegin aundi bat ematen didazu.
- Martxela Ta, bazeneki zer amets egin detan,...
- Tiburtxio ¿Zer gero?
- Martxela Ez nizuke esan biar...
- Tiburtxio ¿Zergatik ordia?
- Martxela Par egingo dezu ta.
- Tiburtxio Ai, ez, Martxela, gaur ez daukat par egiteko gogorik.
- Martxela Bada, amets egin det... Ez gero ñori esatera.
- Tiburtxio Ez Martxela, ez.
- Martxela Badakit par egingo dezula.
- Tiburtxio Ezetz.
- Martxela Bada, amets egin det ezkondu egiten giñala.
- Tiburtxio ¡A zer amets goxua!

Martxela Zu oso apaña etorri ziñan.

Tiburtxio ¿Eta zu?

Martxela Ni; lenbiziko Jaun artzean bezelako soñeko txuriyarekin.

Tiburtxio Bai polita egongo ziñala.

Martxela Aurretik pillarmonika jotzallia genuela errira juan giñan. Plazako tramena aurretik igarotzeakoan, atietan azaldu zan, zera, Errota-goiko mutil kankallu ura, ta parrez asi zitzaigun.

Tiburtxio Len ere, bein baño geyagotan egin dit neri arrek parra.

Martxela Ez dakit belarriondoko bat nola eman ez nion.

Tiburtxio Bi begiondoko ere ondo irabaziyak ditu.

Martxela Gero, elizara juan giñan; eta On Leandro, bikariyo jauna, atera zitzaigun eta aldare aurrera eraman ginduzten... baña, ez nizuke geyago esan biar.

Tiburtxio ¿Zergatik ordia?

Martxela Geyegi esan dizut.

Tiburtxio Orrela, len baño zale geyagorekin uzten nazu.

Martxela Ez ba iñori esan.

Tiburtxio Ez noski.

Martxela Ta ez parrik egitera.

Tiburtxio Len ere ezetz esan dizut.

Martxela Bada jarri ginduzten biyak bata bestien aldamenian. Onela...

Bostgarren Irudia.

V

Lenguak eta Joxpakiña. Azkenian Axeriya.

(Joxpakiña baserritik ateratzen da).

Joxpakiña Gure nexka non ote dabil.

Martxela Ta alkarri eskuak eman... *(Esan bezela egiten dute)*

Joxpakiña Aitaren ta semiaren...

Martxela Ta bikariyo jaunak galdetzen zuenian nik esaten nuen: bai jauna, ta zuk ere: bai jauna.

Tiburtxio Bai jauna.

Martxela Bai jauna.

Tiburtxio Bai jauna.

Martxela Bai jauna.

Joxpakiña (*Biyen tartera sartuta*) Ez jauna, ez jauna. (*Martxela besotik artu, ta baserrian sartzen du*) Ta, zu, sukaldera emendik. Ta mutil orrekin ez zaitiala geyago nere begiyen aurrian jarri.

Martxela Baña, zergatik...

Joxpakiña (*Tiburtxio'ren gana etorrira*) Ta, ik, gixontxua, emengo aldiyak egin dituk, ta kontu izan zak emen ez geyago azaltzia.

Tiburtxio (Jakiñen gañian ez banego, nik orain izango nuken larritasuna).

Joxpakiña ¿Entzun al dek ondo nik esan diatana?

Tiburtxio Bai, andre Joxpakiña; baña, nai duen guziya esan lezake, badaki neri orrengatik ajolik ez didala.

Joxpakiña ¡Ajolik ez dikala! ¡Ori re badiagu!

Martxela (*Baserritik etorrira*) Ez noski. Orri eskerrak eman biar dizkagu. Ori etorri da...

Joxpakiña (*Martxela baserrira eramana*) Zu re bai etorri zera, ta ez etortzeko esan dizut; ta berriz emen azaltzen bazera ez dakit zer egingo dizudan. ¡Txatxala ez besten txatxala. (*Martxela baserrian sartzen da*) Ta, iri: len ere esan diat, eta ua emendik eta ez ayela geyago azaldu.

Tiburtxio Esan, esan bildurrik gabe.

Joxpakiña ¿E?

Tiburtxio Ez naiz ni orrengatik asarretuko.

Joxpakiña Ni asarretuko nak ordia.

Tiburtxio Bai, baña, gogoratu bedi len esan zidanaz. Ori, aldarte txarrak ematen duena da, ez beorri orrelakua dalako.

Joxpakiña Bai, ba; ni orain orrelakua nak. Eta esan diat, eta berriz esaten diat, juateko emendik beriala. Onian nai ez badek, txarrian jua biarko dek.

Tiburtxio Bota, bota. Nai dituenak esan bitza.

Joxpakiña Baña, ume inguma alena; ¿juango al aiz edo ez?

Tiburtxio Ez andria.

Joxpakiña ¡Ez aizela juango!

Martxela (*Baserritik etorrira*) Ez, ama; ori ez da juango ni emen naizen bitartian.

Joxpakiña (*Martxela baserrira eramana*) Zu zera, emendik lenbizi jua biar dezuna, ta berriz ikusten bazaitut, ez egitekoren bat egingo dizut. Petrala, alena. (*Martxela baserrian sartzen da*) ¡Esan zak berriz ere juango ez aizela!

Tiburtxio Bai, andria; nai duen aña aldiz esango diyot. Ni ez naiz emendik juango.

Joxpakiña Onian nai ez badek txarrian jua biarko dek.

Tiburtxio Ezta bultzaka asten bada ere. Ez ta belarriondoko bat ematen badit ere. Nik ez det Martxelik utziko.

Joxpakiña ¿E? Beriala utzi biarko dek ba.

Tiburtxio Oroitu bedi beorrek lenago esan zidana.

Joxpakiña Emen etziok lengo konturik.

Tiburtxio Bei pariakin arrastaka ere ez naute ni bialiko.

Joxpakiña ¿Ezetz? Orain ikusiko diagu. (*Baserrira ojuka*) ¡Axeriya!

Martxela (*Baserriko atian azalduaz*) Ez ama; orrek ez nau utziko, ta nik ori re ez.

Joxpakiña (*Martxela barrenara botiaz*) Ua emendik, zanpa zanpa egin baño len. (*Martxela baserrian sartzen da*).

Tiburtxio ¡Gaxua!

Joxpakiña ¡Axeriya! ¡Axeriya!

Axeriya (*Baserritik ateriaz*) ¿Zer degu Joxpakiña?

Joxpakiña Gizona; bazenuen ordu.

Axeriya Oraintxen ari nitzan bukatzen zera...

Joxpakiña Zure zera ori beñere bukatzen ez dana da.

Axeriya ¿Zer biar dezu?

Joxpakiña Mutil kaskar ori ar zazu lepezamarretik, bere baserrira eraman, eta ez dedilla geyago etorri.

Axeriya Beriala. (*Tiburtxio'ri*) Ai zak, i...

Tiburtxio Ez zayozula jaramonik egin. Berak esan zidan ez juateko ta.

Axeriya ¿Berak esan zikala? Nik esango diat orain. (*Tiburtxio'ri eltzen dio ta atze aldera darama*).

Tiburtxio Zaude geldirik, gizona.

Joxpakiña ¡Utikan!

Axeriya Ator onera.

Tiburtxio ¡Astua! (*Axeriya ta Tiburtxio atzeko eskuitik juaten dira. Joxpakiña ondolik juaten da atzeraño*)

Joxpakiña ¡Ez dedilla geyago etorri! ¡Azkenian ere! (*Joxpakiñak ezkerreara begiratzen du ta aurreratzen da*) On Braulio sendalaria dator. Orrelako bat naiko nuke nik nere alabarentzat.

Seigarren Irudia.

VI

Joxpakiña eta On Braulio. Gero Axeriya.

(On Braulio atzeko ezkerretik azaltzen da).

- O. Braulio Agur, Joxpakiña.
- Joxpakiña Ongi etorri On Braulio. ¿Zer dabil alderdi abetan?
- O. Braulio Urrutikoetxen izan naiz. Mañaxi zarra ikusten.
- Joxpakiña Gajua. ¿Zer du?
- O. Braulio Urtiak nai baño geyo.
- Joxpakiña Ondo emakume sendua izana da bada.
- O. Braulio Orain ere, biziyari sendo eltzen diyo. Uste baño obeto utzi det.
- Joxpakiña Obe, obe. Betor aurrera, ardo pixka bat artuko du.
- O. Braulio Eskerrikasko, Joxpakiña. Artzekuak artuta etxetik atera naiz.
- Joxpakiña Baña, pixka batek ez diyo kalterik egingo.
- O. Braulio Onik beintzat ez.
- Joxpakiña ¿Zergatik ordia?
- O. Braulio Neurritiraño iritxi ezkerro, andik gorakua kalterako bestetarako ez da. Aberiak biar aña eraten dutenian, ez dute tanto bat geyago nai izaten. Gizonak bakarrik, aberiak ez duen adimenaren jabe dan gizonak, gañezka, ler egin arte, zurrutari ekiten dio.
- Joxpakiña Bai; berenkalte batzuek badira.
- O. Braulio Berenkalte asko, Joxpakiña, asko. Ortik etortzen dira gero, ondoezak eta gaxotasunak. Orduan, sendalariaren gana; sendalariak zuzendu ditzala tramenetako okerrak. Nik berenkalte oyetako asko, tramenayen gana bialiko nituke. Sendatu ditzala tramenayak.
- Joxpakiña Badaki, On Braulio, zerbait pozgarri re nai izaten da ta.
- O. Braulio Ori ez da gaizki, baña, bere neurriyan. Benenuak ere, neurriyan artu ezkerro, sendatu egiten du. Eraririk onenak neurritz gain artzen bada, kalte aundiya. (*Axeriya atzeko eskuitik sartzen da ta itzegiñaz baserrira juaten da*)
- Axeriya Txekorra eramán det... Tiburtxio'ren aitari esan diot ukulluan ondo lotzeko... Ez da geyago etorriko.
- Joxpakiña Ondo da. (*Axeriya baserrian sartzen da*) (*O. Braulio'ri*) Izaten dira etxietan ere, alako gertaera alai batzuek eta orduan...

O. Braulio Neroni ere, iñor baño alai ta jostalluago naiz. Ori, bai, Joxpakiña. Baña, orduan ere, erariya neurriyan. Biar bada, neurriya pixka bat aundixiagoa izan liteke, baña, neurriya.

Joxpakiña Loteriyena ere jakingo zuen noski...

O. Braulio Ez zaidazula aitatu Joxpakiña. Orrelakorik ez da beñere gertatu.

Joxpakiña Beñere gertatu ez dana noizbait ere gertatu biar zuen. (Oni begira berriz).

O. Braulio Nere biziyan ez det beste orrenbeste entzun.

Joxpakiña Ez, noski. Beti aberatzak irabazten oituak gaude ta...

O. Braulio Ez da ori...

Joxpakiña Bestiak ere zerbaitetarako jokatzen dute. (Ar zak ori).

O. Braulio Sari nagusiyaren gatik, zuek premiyo mayorra deitzen diozuten sari nagusiyaren gatik, esaten nizun...

Joxpakiña Bai, ba: premiyo mayorra. Gai ontan ondo eskolatuak gaude bai.

O. Braulio Madrillen lumeruak artzerakoan biya bataren aurrian artu, zabaldu ori baztar guzietan; eta orain oker artu zutela, ta bata dala biyaren aurrian, eta ez biya bataren.

Joxpakiña Begira beza, On Braulio: gauza oyek galtzen dutenen berrikerak izaten dira.

O. Braulio Ez, ez. Lenago esan zan, saria zuela bosteun eta ogei ta batak.

Joxpakiña Ez, jauna: amar milla bosteun eta ogei ta bat.

O. Braulio Berdin zait.

Joxpakiña Neri ez ordia.

O. Braulio Zabaldu zan saritua izan zala: amar milla bosteun eta ogeita bata.

Joxpakiña Bai, jauna; orrelaxe da.

O. Braulio Baña, orain gaztiatu dute berriro, lumerua gaizki artu zutela, ta sari nagusia duela: amar milla bosteun eta amabiyak.

Joxpakiña Ez jauna, ez: amar milla bosteun eta ogei ta bata.

O. Braulio Ori da lenbizitik zabaldu zana...

Joxpakiña Ta ori da egiya.

O. Braulio Ezetz. Orain berriro gaztiatu dutela.

Joxpakiña Berriketa oyeekin ez degu zer ikusirik. Gu lenguan gaude.

O. Braulio Nai dezun bezela. Ni banua orain... baña gero esango didazu.

Joxpakiña Len, orain, gero ta beti, gauza bera esango det.

O. Braulio Ikusiko degu. Agur Joxpakiña.

Joxpakiña Bijua ondo, On Braulio. (*O. Braulio atzeko eskuitik juaten da. Joxpakiña'k pixka bat laguntzen dio ta gero biurtzen da*) Bekaizkeriak, inbiriya esan azitzen dizkio. Besteren ona ezin

eramana zer ote da. Orrelako gizon bati, ez nioke ezereen gatik alaba emango. Lenago neskaraz.

Zazpigarren Irudia.

VII

Joxpakiña ta Axeriya.

- Joxpakiña Len ez genuen buru austerik, eta ona zer katramilla berriyakin etorri zaigun txatxu ori. Ezereen itxurik ez du, gezurra dala ziur nago, ta alare, alako kardaba bat gelditu zait. Keskaz beterik utzi nau. Ta ezin burutik bota det. Gizon kaxkar orrek ez daki zer gaitz egin didan. Bañan, nik jakingo det gauza dan bezela; ta egunen batian muturretara botako diyot. (*Baserrira deika*) ¡Axeriya! Orain ikusiko degu.
- Axeriya (*Baserritik ateriaz*) ¿Zer degu Joxpakiña?
- Joxpakiña Ez dakizu sendalari exkallu ori zer enplastorekin etorri zaidan.
- Axeriya Diru billa edo alakoren bat.
- Joxpakiña Bai, zera. Premiyo mayorra etzaigula erori.
- Axeriya Orri, ez; zuri, bai.
- Joxpakiña Bai, noski; premiyo mayorra ez omen da zuk esan zenuen lumeruarena.
- Axeriya Bai andria: Amasei milla...
- Joxpakiña ¿Nola?
- Axeriya ¡A, ez!: amar mila... amar milla bosteun eta ogei ta bat.
- Joxpakiña Bada, ori, okerrekoa omen da.
- Axeriya Ez, andria: zuzenekua.
- Joxpakiña Orain omen da: amar milla bosteun eta amabi.
- Axeriya Zer daki orrek. Ia, orrek baño obeto ez duen jakingo Elizondo'ko Mai Phillipak...
- Joxpakiña Bai noski.
- Axeriya Donostiko kabanen bi errial jokatzen dituta, ia...
- Joxpakiña Ia, ba...
- Axeriya Ta arrek garbi asko esan zuen. A! ta paper mutur bat ere ekarri nizun. Galdu ez bada or izango dezu nonbait.
- Joxpakiña Maindire tartian gordia daukat.
- Axeriya Gorde zazu ba ondo. Ba ezpada re...
- Joxpakiña Orrek diyo, alegiya, Madrillen lumerua gaizki artu zutela, ta bestia dala saritua.

Axeriya	¿Zer? ¿Ala ez panuartzen kaniketan bezela? Ez, ez. Zuria da lenbizikua; ta lenbizikuak baliyo du.
Joxpakiña	Ala esan liteke.
Axeriya	Ta ala da.
Joxpakiña	Baña, zer nai dezu, keska aundi bat daukat; nai ta ere burutik ezin bota detana; ta nayago nuke berriz juango baziña Mai Pilliparen gana.
Axeriya	Alperrik dala badakit; baña, nai badezu juango naiz.
Joxpakiña	Bai, bai. On Braulio'k esan diguna esaiozu; ta ia zer erantzuten dizun.
Axeriya	Beriala juango naiz bada.
Joxpakiña	Ta, ia lenbailen etortzen zeran Zu etorri bitartian keskaz beterik egongo naiz.
Axeriya	Beriala emen natzaizu. (<i>Atzeko eskuitik lasterka juaten da</i>).
Joxpakiña	Berri on bat ekartzia Jainkoak nai dezala. Sendalari txatxu orrek jarri digun katramilla. (<i>Joxpakiña baserrian sartzen da</i>)

Zortzigarren Irudia.

VIII

Narxixo ta Miel Mai. Azkenian Axeriya ta Joxpakiña.

(*Narxixo ta Miel Mai, biyak izketan atzeko ezkerretik sartzen dira*).

Miel Mai	Biga ori nik, biar biarrekuia diat. Biga ori saldu ezkerro ¿zertan gelditzen dek nere ukullua?
Narxixo	Eorrek gelditu biar ukek ukulluan bigaren ordez.
Miel Mai	Bai, Narxixo; ori ala dek.
Narxixo	Egiten ditukan astokeriyakin.
Miel Mai	Bai, baña, txinixta nazak; nik biga ori, andria baño biarragua diat.
Narxixo	Ik andria baño biarraguak dituk biga, zurruta, jokua ta beste axerikeri asko. Ez al zekiau ba zer erropa aizen i.
Miel Mai	Nai dekan guziya. Baña ezagutu biar dek, ni biga ori saltzera jarri banaiz, leporaño estutu nautelako dala.
Narxixo	Bai, noski. Estutu ez baintuten, i ez itzan beintzat estutuko. Or ibilliko itzan lasai asko.
Miel Mai	Ni... Zestua'ko idi apusturak galdu niokan; dema zorigaiztoko ura izan dek nere ondapena.
Narxixo	Ez; ik eorren burua galdu dek; arrokeriz ta lasaikeriz.

Miel Mai Guztiyak abo batetik esaten zitekan irabaziya zegola, ta irabaziya zegola...

Narxixo ¿Guztiyak?

Miel Mai Guztiyak.

Narxixo ¿Bikayuen gana re izan al itzan?

Miel Mai Dotriñak jartzen duela usteko dek zer idik irabaziko duten.

Narxixo Dotriñak, ez. Ori baxo arduak jartzen ditek. Baxo arduen jiran jakiten dituk gauz oyek.

Miel Mai Guztiyak ori ziyotenian, ni re berotu nindukan, ta etxe-errentarako nituen diruak, eta batetik eta bestetik atera nituenak, guziyak jokatu nizekian.

Narxixo Eta guziyak galdu itukan.

Miel Mai Azkeneko txibota añakua.

Narxixo ¿Ta zer zioten orduan irabaziya zegola esaten zuten ayek guztiyak.

Miel Mai Utsa. Ardi pat ez geyago jokatzia, orduan zin egin nikan.

Narxixo Urrengua arte.

Miel Mai Bai, noski; batek eska, ta bestiak estu, onek zula, ta bestiak ziri asi itukan, ta nolabait aurrera ateratze ote nindukan, zulo berriyak billatu ta urrengo demara juan nindukan.

Narxixo Eta berriz ere galdu.

Miel Mai Baña eorrek ezagutu biar dek dema ura adar motzak irabazi biar zutela.

Narxixo Bestiak anka motzak izan balira bai.

Miel Mai Geroztik zer estuasun eman dizkiaten ez diat esan nai. Azkenekua etxe jabiarena izan dek.

Narxixo ¿Zer uste ukan ba, etxe jabia re adar motza zala?

Miel Mai Orduan biga saltzia erabaki nikan. Ondo besteik eziñian... Bañan, bart arratsian, bat batetan gogoratu nindukan, Joxpakiñak artu biar dituen dirutzakin, ¿zer liokek orri neri sei bat milla errial aurreratzia? Nik sorrari erantzungo niokek, eta biga saldu gabe, guziya antolatuko nizek.

Narxixo Tartian beste demen bat sortzen ez bada.

Miel Mai Ez, Narxixo, etzakala orrelakorik aitatu re. Ni ontatik ateratzen banaiz... ¿Ta Joxpakiñentzat zer dituk ba sei milla errial?

Narxixo Utsa...

Miel Mai Orrengatik ba...

Narxixo Orrentzako sei milla errial iretzat boxt xentimo baño gutxiyago dituk.

Miel Mai ¿Bai, e...?

Narxixo Bai ba.

Miel Mai Orduan... sei millen ordez, zortzi milla eskatuko bagenizkiokek.

Narxixo Orrela igotzen bauan...

Miel Mai Jarri zagun ba amar milla, ta ortik gora ez diat arditik ere nai.

Narxixo Bejondaikala.

Miel Mai Ez ta berak eskeintzen bazizkiak ere.

Narxixo Beazak, Miel Mai; sei, zortzi edo amar milla errial izango diran, gutxiyenekua orixe dek. Emen okerrenekua diagu, ire jokurako grin ori.

Miel Mai Txinixta nazak utzi detala.

Narxixo Len, Joxpakiñari esaten aritu natzaiok; orain izango dituen dirutzak urre biurtu ta bizi guzian urria jaten ariko balitz, ez litukela erdiyak ere jango. Ta orain esango diat iri, bizi guzian ezin jan litezken urre oyek guzihak jokuan galtzeko, boxt minutu naikua dirala.

Miel Mai Neonek ere naikua galdu dizkiat, eta etzeukat berriro jokuan sartzeko gogorik.

Narxixo Nik Joxpakiña'ri itzegingo ziuat, eta emango dituela uste diat. Baña, jakiñen gañian egon adi, emendik aurrera zuzen ibilli biarko dekala; bestela, neoni izango nak txarrena. Eta, badakik ni, txarrian txarra naizela.

Miel Mai Bai, Narxixo, zuzen ibilliko naizela zin egiten diat.

Narxixo Orain, etzakala uste, sartu ta zapla diru oyek eskatuko dizkiotela... ondo datorrenian pixkanaka adieraziaz ta...

Miel Mai Ori, eorrek iñork baño obeto dakik.

Narxixo Orduan guazemak txurrut bat artzera.

Miel Mai Ez dakik, Narxixo, zer laguntza ematen diakan. (*Narxixo ta Miel Mai baserrira dijuaz. Atera irixtean, Axeriya atzeko eskuitik karraxika sartuko da*)

Axeriya ¡Ez dala erori! ¡Ez dala erori!

Narxixo

Miel Mai ¿E?

Axeriya ¡Ez dala erori! ¡Joxpakiña! ¡Ez dala erori! (*Joxpakiña baserritik ateratzen da*)

Joxpakiña ¿Nola?

Axeriya Lengo lumerua okerrekua omen zan.

Joxpakiña ¿Okerrekua?

Miel Mai ¡Ederra egin diagu!

Axeriya Bata ta biya; ta biya ta bata, ta, ez dakit... Premiyo mayorra duena omen da, amazazpi milla...

Joxpakiña ¡Amazazpi milla!

Axeriya ;A, ez! Amar milla... amar milla bosteun eta amabi.
Joxpakiña ;Jaungoiko maitia!
Axeriya Zure lumeruak ez du ezer ere.
Joxpakiña ;Au ondamena! ;Au ondamena!
Miel Mai Nere amar milla errialak juan dituk.
Narxixo Orain ere, apustura galdu dek.
Axeriya Ez ta kutsurik ere; ez ta apurrik ere.
Joxpakiña ;Ai! ;ai! ;ai! (*Miñak artzen du, besteak zugatz gañean exertzen dute*).
Narxixo ;Joxpakiña!
Axeriya ;Tantarrantan!

Ezkuta zapia jexten da.

Bigarren Egintzaren Amaia.

Irugarren Egintza.

Iruditegia aurreko egintzetan bezela.

Lenengo Irudia.

I

Joxpakiña ta Axeriya.

Joxpakiña ;Au etxiaren ondamendiya!
Axeriya Zer egingo da bada.
Joxpakiña ;Nere milla pestako billete ederra! ;Nere tantarrantan!
Axeriya Ura juan zan, Joxpakiña.
Joxpakiña Bai; ura juan zan, ta emen nago ni goibeltasunez beterik.
Axeriya Ni re bai, atzo ezkeru, oso goibel nago... (*Eratera balijua bezela, baserrira juaten asten da, baña, Joxpakiñak txamarratik eltzen dio ta atzera ekartzen du*)
Joxpakiña ;E! ;E! ;Nora zuaz orrera?

Axeriya Goibeltasuna pixka bat arintzen ote detan.

Joxpakiña Naikua arindu zera juan dan egunetan. Orkuak bukatu ziran. Gaur ez dezu amets txarririk izango.

Axeriya Zer egingo da bada.

Joxpakiña Onak gaude gu, juan dan egunetan bezela eztaietan ibiltzeko. ¡Eztaiak! ¡Eztaiek ederrak daukazkigu! Nere alaba...

Axeriya Martxela gaxua.

Joxpakiña Ez jan ta ez lo, negar ta negar, urtu biar zait.

Axeriya Tiburtxio zuen bere gogokua ta...

Joxpakiña Nik ere bai. Mutil ona, zintzua, langillia; Tiburtxio zan guk biar bezelako suigaya.

Axeriya Mutillak ere nai zuen ba...

Joxpakiña Guztiyak nai genuen. Baña, millako milla ayek buru guziya nastutu zidaten, eta ezegitekua egin nuen. Gogoratzen naizen bakoitzian, barrenak jira egiten dit.

Axeriya Neri re bai, barrenak jira egiten dit... *(Berriz baserri aldera astenda, ta Joxpakiñak txamarretik eldu ta atzeratzen du)*

Joxpakiña ¿Zertara zuaz orrera?

Axeriya Barrenak jira egin ez dezaidan.

Joxpakiña Jira zaitia ba atzera; orkuak bukatu ziran ta.

Axeriya Barrena ain illuna daukat.

Joxpakiña Poxporo bat pixtu zayozu ba.

Axeriya Martxela'ren negarrak ez dakizu zenbat limurtzen nauten.

Joxpakiña Ni bai, beintzat, une guzietan ez daukat besterik buruan. Egin nuena, egiteko balego...

Axeriya (Nere zintzurrian sartu ziranak, sartzeko baleude.).

Joxpakiña ¿Eta Tiburtxio'kin juan ziñanian, nola artu zinduzten ba?

Axeriya Ni, aitarekin, Loentxo'kin bakarrik egon nitzan.

Joxpakiña ¿Ta?

Axeriya Itz gutxikoa dala badakizu.

Joxpakiña Itz gutxi baña onak.

Axeriya Itz gutxi, ta ayek txarrak esan zizkidan neri.

Joxpakiña ¿Orrenbesteraño?

Axeriya Asarria arpegiyan ezagutu niyon, eta esan zizkidan bi edo iru itz... Ez dizut esan nai zer, bañan biribillak ziran... kurpillik gabe juaten diran oyetakuak.

Joxpakiña ¿Beaz, oso asarretu zan?

Axeriya ¿Asarretu? Ura danakin biribillak botatzen asi zanian, ia nola egongo zan.

Joxpakiña ¿Ta ez ote zayo onezkero asarria igaro?

Axeriya Ez zait iduritzen. Zure alabari ez zaizkio oraindik malkuak legortu, ta, asarriak malkuak baño geyago irauten dute.

Joxpakiña Bañan nik uste det onez onian juan ezkerro, ta gauzak diran bezela esan ondoren, berak ere ezagutuko dutela.

Axeriya ¿Ezagutu? Ara juaten danak bai ezagutuko du... lardaska txarrian sartu dala.

Joxpakiña Zuk juan biar zenuke, Axeriya.

Axeriya Joxpakiña: zuk ez dakizu zer mandatu eman nai didazun.

Joxpakiña Zu azkarra zera, lasai xamarra re bai.

Axeriya Esan zazu, ajolakabia.

Joxpakiña Ez dizut ori esan, baña bai, beste asko baño eraman geyagokua zerala.

Axeriya Ara juan biar duenak zer edo zer eraman biarko du beintzat.

Joxpakiña Gogora zaitia Martxela gaxua, negar ta negar dagola.

Axeriya Ori ez zait aztutzen.

Joxpakiña Gañera, zuk eraman zenuen; eta eraman zuenak ekartzia, bidezkoa dala iduritzen zait.

Axeriya Nik eraman nuen, egiya; baña, zuk aginduta ordia.

Joxpakiña Ekartzeko re, nik agintzen dizut.

Axeriya Joxpakiña: lertuko naute.

Joxpakiña Zer lertu biar zaituzte; zure iñozukeriyak dira oyek.

Axeriya Ez dakizu nola dauden...

Joxpakiña Esan zayozute zuk; nere aldarte txarrak egin azi zirana zala, ondo damutu zaidala, ta barkatzeko...

Axeriya Ez daude gero ayek, bost xentimoen karameluakin goxatzeko...

Joxpakiña Esayozute nexka negar ta negar dagola, ta jarren! len gertatua aztutzeko; ta ia zerorrekin ekartzen diguzun mutilla.

Axeriya Juango naiz bada.

Joxpakiña Bai, gizarajo ori.

Axeriya Baña ez dakit ezer egingo ote degun.

Joxpakiña Bai, bai... (*Baserri aldera asten da ta Joxpakiña'k txamarretik eldu ta atzeratzen du*) ¿Nora zuaz ortik?

Axeriya ¿Ikusten? Neri re buruba nastutzen zait.

Joxpakiña Ez bada biderik nastutu.

Axeriya Ez; zuzen juango naiz...

Joxpakiña Etzaitiala Tiburtxio'rik gabe etorri.

- Axeriya Begi bat gabe etortzen ez banaiz... (*Axeriya atzeko eskuitik juaten da*).
- Joxpakiña Arren egin zayozute. Gure Jaungoiko onak nai dezala, mutillarekin etortzia. Bestela, gañerakuak gañera dirala, zer gertatu biar du gure etxian. Nexka gaxua galduko zait. Ta guziya, nere seta txar baten gatik. ¡Ai, gauzak bi bider egin al balira! (*Baserrian sartzen da*)

Bigarren Irudia.

II

Narxixo ta Antton Miel.

(*Narxixo atzeko ezkerretik azaltzen da*)

- Narxixo Emenguak ere ixilik daude. Joxpakiña gajua; bere jua dan egunetako arrokeriyak jetxiko zitzaizkion onezkero. Izan ere, emen gertatu dana ez da iñon gertatu. (*Antton Miel atzeko ezkerretik sartzen da*)
- Antton Miel ¡Kaxo Narxixo!
- Narxixo Emen degu ba, akulumendi au ere.
- Antton Miel (*Narxixo'ri besuak bizkar gañera botiaz*) Ire ondolik etorri nak.
- Narxixo Ago geldirik, ago geldirik.
- Antton Miel Errekaburu'ko gañetik, ikusi diat estratan zetorrela bat beintizinko baño dotoriago, ta... ¿Zein ote degu ori? esan diat, eta ¡Narxixo! (*Narxixo'ri estualdi bat emanaz*)
- Narxixo ¡Ito biar nak! ¡Utzi nazak!
- Antton Miel ¡Makallon krixketa! I aiz, i, gizon politta... (*Narxixo'ri eltzera egiten du, baño onek atzera azitzen du*)
- Narxixo ¡Esti! ¡Esti atzera!
- Antton Miel I baño polittagorik ez zioke bat erriyan.
- Narxixo (Zer ote dakar onek, koipe orrekin guziyakin).
- Antton Miel Ez dek oraingua. Beti esan diat nik... txinixtu ezakek, Narxixo.
- Narxixo Bai, bai...
- Antton Miel Ez i aurrian agolako, baño i bezelako gizon bat ez zekagu erriyan. Ez noski: erriyan aita santu bat biar bagenu, ik izan biarko ukek.
- Narxixo Txurikeri oyekin, ik zerbait badakark ba...
- Antton Miel Ekarri, ez motell; zerbait eramateko asmoa... ¡Narxixo! (*Berriz ere Narxixo'ri eltzen diyo; onek atzera azitzen du*)

Narxixo ;Ago geldirik! Itzegin biar badek, mingañakin egin zak; ez bi besuakin.

Antton Miel Barrenak ematen duena dek ori.

Narxixo Barrenen gorde zak ba.

Antton Miel I bezelako gizon zintzo, prestu, zuzenakin arkitzian, ;makallon krixketa! ezin egona sartzen zak gorputz guziyan.

Narxixo Neri berriz, ire ondotik itzul egin naya.

Antton Miel Ta marruskatzeko gogo bat sortzen zak... Izan ere ;Narxixo! Ez zioke i bezelako mutillik bost biatzian. (*Berriro Narxixo'ri eltzera egiten dio, bañan onek uxiatzen du*)

Narxixo ;Geldirik egongo al aiz! Zerbait esan biar badek esan zak, baña euki itzik besuak geldirik.

Antton Miel Iri, bai; iri esango diat. Beste bati ez niokek esango, ez ta, ez ta... Badakik ni mingaña dantzatzeko zalia ez naizela.

Narxixo Ez; i, besuak dantzatzeko zalia aiz.

Antton Miel Baña, iri bai, iri esango diat... iri ez diat ba esango... I aiz emen dan gizonik trebiena ta jatorrena, ta ;iri ez esan?... ;makallon krixketa! (*Berriz ere Narxixo'ri eldu nai dio; ta onek ez dio uzten*)

Narxixo ;Besuak ez dantzatzeko!

Antton Miel Iri esango diat, bai. Nere andriari ez ziuat esan. Baña, Narxixo, i aiz nere ama, i aiz nere amona...

Narxixo ;Zer izan biar diat nik!...

Antton Miel I beste gizon usteosokoik ez zioke emen.

Narxixo Bai; ;ta orrekin guziyakin zer dek?

Antton Miel Esango diat... (*Alde guzietara begiratu ondoren eta ixil antzian*)
Pentsuba.

Narxixo A, bai. Ik pentsu asko biarko dek.

Antton Miel Gure ukullura begiratu besterik etziok. ;An dagon aña abere!

Narxixo Ta abereik aundiyena eorri.

Antton Miel Badakik... Pixka bat atzeratu egin nak. Ez dek gauza aundiya: bi milla errial... Baña, Narxixo, i aiz gizon politta, ta azkarra, ta biziya, ta... (*Narxixo'ri eldu nayian*)

Narxixo ;Geldirik egoteko! Zer da abere au berriz.

Antton Miel ;Alperrik dek! Gauza abetako i besterik etziok.

Narxixo Ta, ;zer biar dek ba?

Antton Miel Bi milla errialak.

Narxixo ;Bi milla errial? ;Artaburuan jayotzen dirala uste al dek?

Antton Miel Ez; emengo atso onek, nola diruz laxter lertu biar duen, ire bitartez, bi milla errial oyek emango zizkiguk.

Narxixo ¿E? Ordu onian etorri aiz.

Antton Miel I ortarako azkarra ta, pizkorra ta, biziya aiz ta ¡Narxixo!

Narxixo Ago, ago. Ik ez dakik zer gertatzen dan emen.

Antton Miel Jakingo ez diat ba. Premiyo mayorra erori zitzayola ta...

Narxixo Ori, aiziak eraman zikan.

Antton Miel ¿Aiziak?

Narxixo Bai, Antton Miel: emengo berriyetan oso atzera abil.

Antton Miel ¿Atzera nabillela?

Narxixo Pentzuetan bezelaxe.

Antton Miel Baña, i, ¡makallon krixketa! perratxiku xamarra aiz eta, aterako dizkiok... ik... baita...

Narxixo Ez baldin badu, ¿nola aterako ziuat?

Antton Miel Baña, premiyo mayorra erorita...

Narxixo Ez zayola erori ez premiyo mayorrik eta ez besterik. Jokatutako milla pestak gutxiyago. Ori atera dik loteritik.

Antton Miel Nola izan litekek ordia...

Narxixo Ori etzekiat. Axeriya ibilli dek tartian eta orrek jakingo dik.

Antton Miel Gizon kaxkarra dek ori. (*Atzeko eskuitik Axeriya azaltzen da*).

Narxixo Emen dek bera.

Antton Miel Ori ez dek i bezelakua, Narxixo. (*Antton Miel ezkerrean eskutatzen da*).

Irugarren Irudia.

III

Narxixo, Axeriya ta Joxpakiña.

Narxixo ¿Zer abil Axeriya?

Axeriya Narxixo: elbarritu niotek.

Narxixo Ez dek ba batere ezagun.

Axeriya Kanpotik ez; baña, barrena nola daukadan ikusiko bauke...

Narxixo Barrena, bazekiau: juan dan egunetako zurrutak irakiten.

Axeriya Irakiten bai, baña zurrutak, ez; zartatekuak.

Narxixo ¿Zer ba?

Axeriya (*Baserriko atian deituaz*) ¡Joxpakiña!

Narxixo ¿Nun izan aiz?

Axeriya Tiburtxio ekartzeko asmuari jua naka; eta etzekiat, nola Loentxo'k erakutzi didan gosti zigor batekin etorri ez nake.

Joxpakiña *(Baserritik ateriaz)* ¿Zer egin dezu mutillarekin?

Axeriya Zuk loteriyarekin egin dezuna: galdu.

Joxpakiña ¿Galdu?

Axeriya Neroni galdu ez naizenian...

Narxixo I galdu izan baitz, bazekiat nun arkituko indutekan: baserri ontako atietan.

Joxpakiña ¿Baña, zer gertatu da?

Axeriya ¿Zer gertatu dan? Senar emaztiak a zer arroaldiya eman didaten. Bata ta bestia zeñek aundiyaguak bota; ta biyetan minkaitzena, Atanaxi.

Narxixo Ez dek ba ori orrelakua.

Axeriya Azkenian Loentxo'k gorosti zigor bat artu du, ta eskerrak itzul egin detala, bestela belarri ertzeko autzak astintzen dizkit.

Narxixo Ayek diranakin arritzen nak.

Axeriya Gero; batak eta bestiak, neregatik dala guziya, ni naizela jardun au jarri duena.

Joxpakiña Bai, noski.

Axeriya ¿Nola?

Joxpakiña Zuk eraman zenuen ta.

Narxixo Ori begiyen aurrian zio.

Axeriya Nik eraman nuen, bai; zuk aginduta ordia.

Joxpakiña Nik agindu arren, gizona dan gizonak ez du orrelako astokeririk egiten.

Narxixo Ez noski; non egon i, ez ezagutzeko, ura ezin egin zitekena zala.

Joxpakiña Nik oker egin banuen, zorrak zuzendu biar zenuen.

Narxixo ¿Onak? Ara jua ta re Jainkuak daki zer astokeri esango zituen.

Axeriya Ori, ez; nik ez nuen esan, biar etzan ezer.

Joxpakiña Ez dakit; ez nuke lepua jarriko.

Axeriya Ez andria. Nik bakar bakarrik esan nioten: mutilla ukulluan ondo lotzeko.

Narxixo ¡Au asto kirtena, au!

Joxpakiña ¡Ori esango zenion ba!

Axeriya ¿Zer du ba orrek?

Joxpakiña Naspilla guziyak zuk sortu dituzu.

Axeriya ¿Nik?

Narxixo Ik, bai. Au lotu biar luteke ukulluan, au.

Joxpakiña	Onentxen gatik dira katramilla guziyak.
Narxixo	Onek baztar guziyak nastutu ditu.
Axeriya	Ik obeto egingo ukan.
Narxixo	Bai, noski. Orain bertan ekarriko diat nik Tiburtxio.
Axeriya	Ua, ua.
Narxixo	Juango naizen bezela.
Joxpakiña	Zuk ekarri biarko dezu, bai.
Narxixo	Kaiku onek ez beintzat. Beriala emen naiz mutillarekin.
Joxpakiña	Bai, bai; zuri eskerrak. (<i>Narxixo atzeko eskuitik juaten da</i>) (<i>Axeriya'rri</i>) Etxe ontako naspilla guziyak zure gatik izan dira; zu saltza-jariyo bat besterik ez zera; baztar guziyak zuk okertzen dituzu, jendien arteko aserriak sortzen besterik ez dakizu. ¡Utikan, gizon kaxkarra! (<i>Joxpakiña, oso asarre, baserrian sartzen da</i>)
Axeriya	Lenbiziko astiñaldia, an; bigarrena emen...

Laugarren Irudia.

IV

Axeriya ta Antton Miel.

(*Joxpakiña joatean Antton Miel ezkerretik ixilikan sartzen da*).

Antton Miel	¡Gixon kaxkarra!
Axeriya	¡Irugarrena!
Antton Miel	Gixon petrala, zirtzilla, zarpalla. I bezelako txatxuai azkazal tartian artu ta ¡plast! egin biar litzaokek arkakusuai bezela.
Axeriya	¿Zer eran dek ik gaur?
Antton Miel	Ik utzitako kondoik ez beintzat.
Axeriya	Orren miñik ez diat nik eraten.
Antton Miel	¿Ik? Bestek eman ezkerre sulimana re bai.
Axeriya	¿Bañan, zer dek ik gaur?
Antton Miel	Pentzuak dizkiat, pentzuak.
Axeriya	¿Saltzeko?
Antton Miel	Ez; iri aboko zulotik sartzeko.
Axeriya	Ez diat pentzuik jaten.
Antton Miel	Nik eman ezkerre jango uke.
Axeriya	Ez; ollaxkuak nayago dizkiat.

Antton Miel Iretzat zioztik. Alako ederki guziya tajutua neukana, ta, txatxu onek purrukatu dit.

Axeriya ¿Nik?

Antton Miel Iregatik bi milla errial galtzen dizkiat. Txiki txiki eginta ere ez aiz ordaintzen.

Axeriya ¿Baña, nik zer egin diat iri?

Antton Miel Utza; emen ibilli azi ¡tantarrantan! ¡tantarrantan! ¡tantarrantan! Likitx alena ¿Nun dek orain ttanttarranttan, ttanttarranttan, ttanttarranttan?

Axeriya Zerian, kolkuan sartuta.

Antton Miel ¡Makallon krixketa! Ainbeste premiyo mayor, ta ainbeste miloi... ta, orain... ttanttarranttan?

Axeriya ¿Ta nik zer egingo diat?

Antton Miel ¿Zer egingo dekan?... Ixkiñoxo alena... nere pentsuak ordaindu.

Axeriya Neriak ere lana naikua ematen ziatek.

Antton Miel Iregatik gelditzen nak ni, bi milla errial gabe.

Axeriya ¿Nere gatik?

Antton Miel Iregatik, bai. Bi milla errialak iri, estietatik atera biar nizekikek, estietatik.

Axeriya ¿Zer uste dek ik? ¿Estietan bankuen bat daukatala edo zer?

Antton Miel ¿Bankua, ik? Tupi zarren bat bai. Ta karrakatua bera.

Axeriya Karrakatua ez badago ere, ire ziplakakin karrakatuko dek.

Antton Miel ¿Ziplakak? Zapladak eman biar nizekikek iri. Bi gorosti zigor artu ta...

Axeriya ¿Loentxo'k bat eta ik bi?

Antton Miel Bi, bai. Ta ayekintxe ire buru kankarrian jo biar nizek xalaparta.

Axeriya Antton Miel: lenago ere naiko zalaparta atera dek, eta utzi nazak pakian.

Antton Miel Zalaparta geyago atera ukan, ire tantarrantanekin.

Axeriya Ura juan ukan, Antton Miel.

Antton Miel Ura juan bada, iregatik izan dek, ñaño, ergel, inguma.

Axeriya Ezetz.

Antton Miel Iregatik galtzen dizkiat bi milla errial.

Axeriya ¿Nere gatik?

Antton Miel Iregatik, pentsuak ordaindu gabe gelditzen zaizkiak.

Axeriya ¿Pentsuak ere bai?

Antton Miel Gixon kaxkarra, giza artean baxo erdi bat erateko gauza ez dan gixona; ta bitartian, baserri ontan, aurrak tititik bezela, zagi muturretik ateratzen ez dana...

Axeriya Bota, bota.

Antton Miel Berriz ere ire andriak dantzatu biarko dik erratzaren kirtena.

Axeriya Iru astiñaldiren ondoren erratzaren kirtena? Ez nak ari.

Antton Miel I ez aiz ariko; baño ire andriak ari biarko dik...

Axeriya Ire, geyegi ari aiz, ta oraintxen aspertu nak. ¡Zer da asto kirten au berriz! Naikua baño geyago esan dek, eta ez niok ni ire lerdengeriyak entzuteko. (*Ate aldera egiten du*)

Antton Miel Ta, baztar guziyak ondatu ondoren beriak aundiyaguak.

Axeriya Pentsuetan akatza badek eorrek jan ditukalako izango dek.

Antton Miel Ez nak i bezelako aberia.

Axeriya Ez noski: ni baño azkozaz aundiyagua.

Antton Miel Ni añakua izan naiko uke.

Axeriya Orrenbesterañokua ez nitek izan nai. Or gelditzen aiz. (*Atzeko ezkerretik juaten da*)

Antton Miel (*Axeriya jua dan aldera begira*) Ua bai, ua: gixon kaxkarra, gixon petrala, gixon txatxua. (*Txixtua botiaz*) ¡Puf!... ¡Makallon krixketa! (*Atzeko eskuitik juaten da*).

Bostgarren Irudia.

V

Joxpakiña. Gero Narxixo ta Tiburtxio. Azkenean Martxela.

(Joxpakiña baserritik ateratzen da).

Joxpakiña Gure nexkak urtu biar du. Urtu biar du. Narxixo'k Tiburtxio ekarriko al du; bestela ez dakit zer gertatu biar duen gure etxian. Errexago biali nuen. Jakin izan banu, loteri edo loteri ondo, emen gelditu biarko zuen. ¡Ai! Ondo damutu zait. Ez det ikusiko berialakuan nere begiyen aurrian. Nai bezin laister ez beintzat. (*Narxixo atzeko eskuitik azaltzen da. Ondoren dator Tiburtxio*)

Narxixo Ator aurrera. (*Joxpakiña'ri*) Ona emen, Tiburtxio.

Joxpakiña Zure zai negon, ¿Emen al zera Tiburtxio?

Tiburtxio Martxela'ren gatik nator; bestela ez nitzan etorriko.

Joxpakiña Ez, noski. Nik ere Martxela'ren gatik nai nikan. Gaxua, negar eta negar or ziok.

Tiburtxio Atsekabe orrek negar egin biarko zuen bai; beorrek ez beintzat.

Narxixo Etzakala uste, Joxpakiña'k ere malkuak txintxilik zeuzkakan.

Joxpakiña Gizarajo orrek ez dakik nere barrena nola dagon.

Narxixo I etorri arte gajo au ez ukan bizi.

Joxpakiña Ez noski. I etorri arteko orduak ez dituk juan nik nai bezin laxter.

Tiburtxio Amak esan dit, beorri esateko, ez naukatela ni ukulluan lotuta eukitzeko.

Joxpakiña Ez orixe. Esan akiok ire amari, etxeko gelik ederrenian eukiko agula. Bai orixe.

Narxixo Ukullu ta barbulleri oyek Axeriya'ren egitekuak dituk.

Joxpakiña Arrek baztar guziyak nastutu dizkik.

Narxixo Ura izan ez bazan, etzan emen ezeren okerrik.

Joxpakiña Ez, bada; etxeko guztiyak txoraturik geunden gure Tiburtxio'rekin.

Narxixo Nik, beintzat, beti baba dayozutela arkitu zaituztet.

Joxpakiña Gure nexka... (*Bat batetan baserriko atera juan eta deika*) ¡Martxela! (*Bestien gana biurtzen da*) Gure nexka, onekin ikustian, zoraturik egoten giñan.

Narxixo Ik ez dakik, Tiburtxio, zenbat maite auten emen.

Tiburtxio Martxela'k bai.

Joxpakiña Baita beste guztiyak ere.

Narxixo Nik uste diat Joxpakiña'k Martxela'k baño re geyago maite auela.

Joxpakiña Ez nuke ezetz esango.

Tiburtxio Nik bai.

Narxixo Ik, bai; ik esango dek gertatu zaikana gatik; baña, oroitu adi, Axeriya'ren gauzak izan dirala, arren astokeriyak.

Joxpakiña Gizon orretzek oker guziyak ekarri dizkigu.

Narxixo Axeriya ardizai jarri ezkerro jakiña zan zer gertatu biar zuen.

Joxpakiña Bai ondo ere. Gure nexka... (*Bat batean baserriko atera juan eta deika*) ¡Martxela! (*Bestiengana biurtzen da*) Gure nexka negarrez ikusten detan bakoitzian, barrenak jira egiten dit. Eta guziya, Axeriya, gizon zarpail orren gatik.

Narxixo Esan ezakek axeriyaren atzaparretatik itzul egin dekala.

Joxpakiña Ordu onian. Ta gure nexka... (*Bat batetan baserriko atera juan eta deika*) ¡Martxela! (*Bestien gana biurtzen da*) ...zalantzaz beterik, bere ardixua eraman ziotenian. Bañan, zer egiten du orrek etorri gabe. Zuloren batian sartuta or egongo da. (*Joxpakiña baserrira juaten asten da ta Narxixo'k gelditu azitzen du*)

Narxixo Zaude. Ikusiko dezu, nola nik zulotik atera aziko detan. (*Narxixo'k baserriko atetik oju egiten du*) ¡Tiburtxio emen da!

Martxela (*Baserriko atian azalduaz*) ¿Tiburtxio?

Narxixo (*Joxpakiña'ri*) ¿Ikusten?

Tiburtxio ¡Martxela!

Martxela ¡Tiburtxio!

Joxpakiña Neri eskerrak emen dezu.

Martxela Beorri eskerrak jua ere egin zan.

Joxpakiña Ori, ez; Axeriyen gatik. ¿Ez da ala, Narxixo?

Narxixo Emen egin diran gauza txar guziyak, Axeriyarenak izan dira. Onak berriz, Joxpakiñarenak.

Joxpakiña Esango nuke.

Narxixo Eta nere egitekuak emen bukatu dira, ta beste bat arte.

Joxpakiña ¿Ba al zuaz?

Narxixo Berriz ere, zerbait bada, agindu. Baña, ez dedilla Tiburtxio'ren billa juateko izan.

Joxpakiña Ez; orainguan ez dit mutillak igesik egingo.

Narxixo Agur ba, Joxpakiña.

Joxpakiña Zuaz ondo. Ta egin dezun guzia gatik eskerrak ugari.

Narxixo Ez da zeri. (*Narxixo atzeko eskuitik juaten da*).

Joxpakiña (*Tiburtxio ta Martxelari*) Zuek orrela ikusteaz ez dakizute nere barrena zenbat zabaltzen dan.

Martxela Beorrek estutu ez bagindu, gu, len ere, zabal asko egongo giñan.

Joxpakiña Lenguak aztu egin biar dituzute. ¿Ez da ala, Tiburtxio?

Tiburtxio Beorrek ala diyo.

Joxpakiña Bai, bai. Zuek orrela ikusteaz, ez dakizute zenbat poztutzen naizen. Jarrai zazute bada, aserreik gabe...

Martxela Len ere ez giñan gu aserretu.

Tiburtxio Ez, noski.

Joxpakiña Ez, bada. Ta orrengatik ez dezute ba, aserretu biar. Nik uzten zaituztet, e? Ta alkarri zuen gauzatxuak esanaz, ia pixka bat alaitzen zeraten. (*Baserri aldera juanaz*) (Ontaratu geranian ez naiz asarre). (*Baserrian sartzen da*)

Seigarren Irudia.

VI

Tiburtxio ta Martxela. Beriala Joxe Ramon.

Martxela Ez dakizu, Tiburtxio, zenbat negar egin detan.

Tiburtxio Nik ere bai, Martxela.

Martxela Ta nere ama, zu uzteko ta uzteko, gelditu gabe ari zitzaidan.

- Tiburtxio Ori bera, neri ere, amak esaten zidan.
- Martxela Nik ordia, nai ta ere, ezin zu utzi.
- Tiburtxio Ori bera neri gertatzen zitzaidan.
- Joxe Ramon (*Baserritik ateriaz*) ¿Emen al zerate gazteak?
- Tiburtxio Emen gaude.
- Joxe Ramon ¿Ta barren oiek batere alaitu al dira?
- Martxela Ondo biarra degu.
- Joxe Ramon Gaizuak. Gizartean ere, mendietan bezela gertatzen da. Askotan errekatoak beren uaskatik aterata, kalte gogorak egiten dituzte, negar ugari sor arazi ere bai. Baña lengo bidetara biurtzian, zer atsegin, zer pozak biotz guzietan. Emen ere, ori bera gertatu da. Bada norbait, bere bidetik atera dana. Eskerrak eman dezaizkiogun gure Jaungoiko onari biurtu dalako, ta poztu ditezen gure barrenak.
- Tiburtxio Nere ezereza ezagutzen det. Etxe onetan azaldu nitzanian banekien ezin eskeñi nezakiela nere zintzotasun apurra, ta nere lanerako gogua baizik.
- Joxe Ramon Mutil zintzo ta langilleak ez zeukak iñorako lotsakizunik.
- Tiburtxio Ni zoriontsu bizi nitzan, ni baño zoriontsuago iñor izan zitekenik ez nuen uste. Egunez, soroan, lana gogotik egiten genuen; ez lan asarrez lan pozaz baizik.
- Joxe Ramon Ori dek, seme. Ez dek lanik nekazaritzakoa baño emankorragorik. Gure kopetetik ixurtzen dan izardi tanto bakoitzak, lurra maitetsu zabal azitzen dik, eta garau, ale ugariak ematen zizkiguk.
- Tiburtxio Eta gabian, lanak bukatu ondoren, sendi guztia su ondoan biltzen giñanian, etzan neretzat alako zerurik.
- Joxe Ramon Nekazariyen zerua, orixe dek.
- Tiburtxio Len, gure amona xarrak ipuiak esaten zizkigun.
- Martxela Zer ederki.
- Tiburtxio Gaxo ura il zan; eta orain, amak esaten dizkigu. Ni, zoriontsu, beste ezeren zalerik gabe bizi nitzan... baña, Martxela ezagutu nuen, ta nere izakera oso aldatu zan: soroan eta etxean, esna edo ametsetan beti Martxela dabil nere buruan. Ni ez nitzan bere billa juan, nik ez nuen beñere orrelako asmorik izan. Nere barrenen, bere kaus, sortu zan gau eta egun uzten ez nauen griñ ezin aldendua. Nik ez dakit zer dan au.
- Joxe Ramon Nik bai. Ur oyetan igarua bai nak lenago. Esango diat. Zuen etxean, len, amonak esaten zizkizuten ipuiak; baña ura il ukan eta orain amak esaten dizkizute. Zuen ama gajuak ordia, nik bezela, il bearko diagu, ta aurrera nork ipuiak esan billatu biar dek,...
- Martxela Nik esango ditut. Amari ta amonari ikasiak, politik badakizkit.
- Joxe Ramon Ori da bide zuzen eta jatorra.

Martxela Etxeari begiratzea nere gain geldituko da; nik nere senarrari soroko lanetan lagunduko diot; nik sendia biltzean ipuiak esango ditut...

Tiburtxio Ta ori izango da zorion neurrigabea.

Joxe Ramon Bai gazteak, bai. Soroko lanak amaitu ondoren, sendiak sukaldeko epeltasunean biltzen diran bitartian, Euskal erriko baserriak zoriontsu ta garaiki iraugo dute.

Zazpigarren Irudia.

VII

Lengoak eta Joxpakiña.

Joxpakiña (*Baserritik ateriaz*) ¡Au etxiaren ondamendiya!

Joxe Ramon ¿Zer dezu Joxpakiña?

Joxpakiña Iru zagi garbitu dizkigute, ta laugarrena asiya. Bi urdaiazpikotik sokamuturrak besteik ez dituzte utzi. Ogitan, arrautzetan, lukainketan, ez dakit zer ondamera egin duten. ¡Nola burua jaso, nola!

Joxe Ramon Lanaren bitartez, Joxpakiña, lanaren bitartez; eta ez jokutik. Oker abek guztiyak, lanak zuzenduko ditu.

Joxpakiña Baña, onenbesterañoko galerak...

Joxe Ramon Ikaskisuntzat artzen baditugu, oraindik irabaziyan aterako gera.

Joxpakiña Bai, bai. Gure Jaungoikoak ere, ez digu loteriyen askorik lagundu beintzat.

Joxe Ramon Aiztiyan entzun bazenote gazte abei, gure oñordeko izan bear duten abei, nerekin batian esango zenuen: gure Jaungoiko onak bigaltzen digun loteri au baño ederragorik ¿zertarako?

Joxpakiña Zerbaiten biarra izango degu.

Joxe Ramon Eta, aurrerako ere, ez gera ain gaizki gelditzen. (*Txamarrako sakelian billatuaz*) Oraindik ere, kondarren bat izan bear duela uste det; emen izan bear det nunbait... Emen da. (*Joxe Ramon'ek milla pestako bat ateratzen du, ta Joxpakiña'k begiratzen dio alde guzietatik*)

Joxpakiña ¡Milla pestakua!

Joxe Ramon Bai, milla pestakua da.

Joxpakiña (*Bilietari geyago begiratu ondoren*) ¡Oi! ¡Tantarrantan!

Tiburtxio eta

Martxela ¿Tantarrantan?

Joxe Ramon Bai; auxe da hainbeste buru auste eman dizun tantarrantan.

Joxpakiña ¿Nola ordia?

Joxe Ramon Loteriko dendara jua nitzan. Esan nizun lumerua xintxilik antxen zego. Bi aldiz sartzera egin nuen... Baña ez nuen kemenik izan.

Martxela Jainkoari eskerrak.

Joxe ramon Bai, alaba; Jainkoari eskerrak. (*Joxpakiña'ri*). Biletia Donostian utzi nuela esan nizun; baña, esan ez nizuna da, dendan bertan, zego tokiyan utzi nuela.

Joxpakiña Azkenian ere, orra gure tantarrantan azaldu.

Joxe Ramon Bai, Joxpakiña. Gordetzen dana azaltzen da; jokatzen dana, ez. Eta nik, diru au sakelian gordetzeko orde, aurrera kutxa batian, kaja de aorros batian jarri izan banu, diru onetzaz gañera zer edo zer geyago izango genuen. Eta ori da bigar eguna argitzen duen bezelaxe egingo detana: Donostira jua eta aurrera kutxa batian, kaja de aorros batian jarri. Ta ori izango da, entzun zazu ondo Joxpakiña; ikasi zuek ere gazteak: ori izango da egiazko loteriya; egiazko Tantarrantan.

Ezkuta-zapia jeisten da.

AMAYA